

gizartea
aht
historia
isaac puente

GEU


2,40 €

2008ko maiatza 184


gaiak
'batekmila. euskal
munduak' erakusketa
euskal curriculuma

musika
kaotiko
saioa
igor arzuaga

PIRRITX ETA PORROTX



Sartu ate guztiak irekitzen dizkizun prestakuntzan



DIOCESANAS

EDUCACION SECUNDARIA Y FORMACION PROFESIONAL
BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA

BATXILERGOA L.H.ko ZIKLOAK

asteazken guztietan 18:00etatik aurrera
ARRIAGAn NIEVES CANOn
MOLINUEVOn eta MENDIZORROTZAn

jardunaldi irekiak


Aurre-inskripzioa egiteko
epearen aurreko asteetan



Diocesanasen Hezkuntz-Eskaintza 2008 - 2009 ikasturtea

	Derrigorrezko Hezkuntza		Derrigorrezkoaren ondoko Hezkuntza		
	D.B.H.	LANBIDE HASTAPENA	BATXILERGOA	ERDI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK	GOI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK
ARRIAGA	A, B eta D ereduetan	Soldadurako Langilea	Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)	<ul style="list-style-type: none"> Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa Ibilgailuen Elektromekanika 	<ul style="list-style-type: none"> Informatika Aplikazioen Garapena E-G Informatika Sistemen Administrazioa Produktu Elektronikoen Garapena Automozioa Industri Ekipoen Mantenimendua Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak (Elektronika) Telekomunikabide eta Informatika Sistemak
MOLINUEVO		Merkataritza Laguntzailea	Giza eta Gizarte Zientzen Batxilergoa (A eta D ereduetan)	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio Kudeaketa E-G Ile-Apalketa Erizaintzaren Laguntza G 	<ul style="list-style-type: none"> Administrazio eta Finantzak E-G Garraioaren Kudeaketa Merkataritza Kudeaketa eta Marketina G Estetika Gizarte Integrazioa
NIEVES CANO	A, B eta D ereduetan	Metal-arotzeriako langilea	Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)	<ul style="list-style-type: none"> Mekanizazioa E-G Informatika Sistemen Ustiapena 	<ul style="list-style-type: none"> Mekanizazio Bidezko Produkzioa E-G Proiektu Mekanikoen Garapena Diagnosi Klinikoen Laborategia
MENDIZORROTZA				<ul style="list-style-type: none"> Jateke eta Tabernako Zerbitzuak Sukaldaritza Pastelgintza eta Okintza 	<ul style="list-style-type: none"> G Gauzkoa E-G Egunezkoa eta gauzkoa E-G A eta D ereduetan eskaintzen diren Zikloak

- L.H.ko Elizbarrutiko Lanaren Ikastetxea
- Lanbide Heziketa osoko Ikastetxea
- HEZKUNTZA SAILArenkin hitzartutako Ikastetxea
- JUSTIZIA ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAren babespeko Ikastetxea.
- ARABAKO LHko PARTZUERGOKO kide
- HOBETUZ eta INEMek homologaturiko Ikastetxea
- LANBIDEren Ikastetxe laguntzailea
- HETELera eta Kristau Eskolara elkartutako Ikastetxea
- CAJA VITAL KUTXAren Gizarte Ekintzaren baitakoa



geu aldizkaria.
urteko kuota: 20.- euro.

sumarioa 184

geupertsonaia

pirritx eta porrotx 7-11

orribatean

askotarikoak 12

geugaia

'batekmila. euskal munduak' erakusketa 14-16

bathirutan

euskal curriculuma 17-19

arte txoko / musika

kaotiko 24-26

saioa 28-29

igor arzuaga 30-31

batbitan

aht gelditu! elkarlana 32-33

bidaia

polinesia: rapa nui 34-35

historia

isaac puente, maetzuko medikua 36-37

beste:

gaztezulo 22

literatura dosi txikitan 27

geusex 41


agenda, kaletik, euskaltasunean, proposamenak,
araba bixotzian, historia zutabea, errezeta eta umorea



GEU

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariako taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | geugaste@grn.es | geu@geugasteiz.com | www.geugasteiz.com | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariako batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune velez de mendizabal, edurne begiristain, ainhoa arriaga, naroa cuesta, ane pedruzo eta josune garcia de bikuña | azaleko argazkia: katxiporreta | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orraketa-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: inigo sarasola | kolaboratzaileak ale honetan: kike fdz. de pinedo, mikel ayerbe, erlantz urtasun, maider garcia de bikuña (emaize sexologia zentroa), diocesanaz-mendizorrotzako ostalaritza eskola eta gaztezulo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen-harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzailea: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekologikoaz egina dago | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:



www.geugasteiz.com

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

zeregineuskaraz [maiatza]



GEU ELKARTEA

GEUREKIN MENDIRA
maiatzak 18 igandea
GANBOA (1.402 m.)
[aralar mendikatea]
EGUN OSOKO irteera
irteera: Iovaina plazatik / kotxez
ordua: 9:00
arduraduna: joseba (945200973)
geurekinmendra@gmail.com



Maixa
Sentitzen naiz

KULTUR ERROTA
maiatzak 27, asteartea
MAIXA: 'Sentitzen naiz'
une goxo eta erlaxatuetan entzuteko
pop musika dakarkigute Maixa eta
bere kideek. 'Sentitzen naiz' izeneko
proiektua taularatuko dute parral
tabernan. taldea: koldo uriarte
(pianoa), iosu izagirre (kontrabaxua),
hasier oleaga (bateria), alejandro
mingot (gitarra), eta maixa lizarribar
(ahotsa eta trikia).
parral tabernan, 20:30

IRAKURLE KLUBA
apirilak 24, osteguna
MAX FRISCH, HOMO FABER.
ELKARLANEAN 2001

ekainak 26, osteguna
KARLOS LINAZASORO, DIOTENEZ.
EREIN 2007

hikaatenean, pintore kalea 13,
20:00
kontaktua: iban.zaldua@ehu.es

www.geugasteiz.com
geuelkartea@grn.es /
945222153

BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ



montehermoso

MONTEHERMOSO KULTURUNEA.
ERAKUSKETAK
asteazkeno, 19:30 (ez da
beharrezkoa deitzea)
taldeak: asteartetik ostiralera, 18:00
(aurretik erreserba eginez)
945161830
HASERREAREN BEGIRADA.
maiatzaren 4ra arte
PASAHITZAK 3: feminitatea
eztabaidatu. maiazaren 18ra arte
www.montehermoso.net

ANDRA MARI KATEDRALA
945255135
www.catedralvitoria.com



GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA
erreserbak: andramari katedralaren
bisitarien zentroan / 945 255 135
4 bisita eguneko (iraupena:
ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45
2 euro pertsonako

IRUÑA-VELEIA
945403044 / 652720947
www.veleia.com

GATZ HARANA. GESALTA AÑANA
astelehenetik igandera
(jai egunak barne), 11:00 / 12:00 /
13:00 / 16:00 / 17:00 / 18:00
bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino
gehiagoko taldeak
helduak: 3 euro / lagundutako
haurrak: dohainik / taldeak: euro 1
945351111
www.vallesalado.net



ARTIUM

**ERAKUSKETEN BISITALDI
GIDATUAK**
asteazken, larunbat eta
igandero, 11:30
doan. plaza mugatuak

**TALDEENTZAKO BISITALDI
HITZARTUAK**
derrigorrezkoa alde aurretik
erreserba egitea (73 euro)

FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK
larunbat & igandeak, 12:30-13:15
5-11 urte bitarteko umeentzat,
helduek lagunduta
doan. plaza mugatuak

FAMILIENTZAKO JARDUERAK
larunbatak, 17:00-18:30
7-10 urte bitarteko haurrak, helduren
bat lagun
sarrera: 4 euro (helduak) / euro 1
(haurrak) [erdi prezioan kide
elkartuentzat]
toki mugatua

ARTIUM TXIKIA
igandeak, 12:15-13:30
3-5 urte bitarteko haurrentzat,
helduek lagunduta
**maiatzak 4, 11, 18, 25 + ekainak
1, hurrenez hurren:**
-zilegi da hormetan margotzea
-zuria zuriaren gainean eta beltza
beltzaren gainean
-alfonbra magikoa
-gure gorputzak arrastoa uzten du
-sorginen akelarrea

GOIZEAN ARTIUMEN
igandeak, 12:00-13:30
6-11 urte bitarteko haurrentzat,
helduek lagunduta
**maiatzak 4, 11, 18, 25 + ekainak
1, hurrenez hurren:**
-koloreak inguratzen nau
-armairua zabaldu eta...
-ez atzo eta ez bihar, gaur!
-berriz esango didazu, mesedez?
-neronek egingo dut!

UDALEKUAK
izena emateko epea: maiazaren
5etik aurrera
(betetzen denean itxiko)
[ordutegia: 8:00-20:00]

**-ZURE HIRIA EZAGUTU ETA
APROBETXATU ARTEA ETA
NATURA**
6-10 urte / elebidunak / 9:30-
14:00 / ekainak 30-abuztuak 1 /
astebete (65 euro) edo 2 aste
(120 euro)
**-GAZTETXOENTZAKO
UDALEKUAK: ZEIN ADIERAZPIDE
ERABILIKO DUT?**
11-14 urte / 9:30-14:00 / uztailak 7-11
/ 75 euro

info + erreserbak: 945209010
www.artium.org

TXIKIART
MONTEHERMOSO KULTURUNEA
larunbatero, 18:00
nagusi & umeen arteko erakusketa-
tailerra
945161830
www.montehermoso.net

UDALEKUAK 2008
'URBASAN BAGARA'
astebeteko egonaldiak uztailean
izena emateko epea: maiazak 9
'zazpi lurraldekoekin, zazpi egunez'
lelopean zazpi lurraldeetako 1995
eta 1998 urte bitartean sortutako
gaztetxoei zuzenduta / aisialdi
jarduera hezigarriak
informazioa: + 34 943 670 249
urbasanbagara@udalbide.net
www.udalbide.net

**EGONALDIAK FAMILIA
EUSKALDUNETAN
2008**
izena emateko epea: maiazak 5-30
hilabete bateko edo biko egonaldiak
(uztaila, abuztua edo iraila)
ulibarri & urrats euskaltegien
ekimenez
izen-ematea eta inf+: 944162472
(oihane)
www.egonaldiak.net

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa

BERTSO UDALEKUAK

izena emateko epea: maiatzak 9
BARRIAN, uztailak 1-7 / 9-11 urte
bitarteko umeentzat
ZUHATZAN, irailak 2-5/9-12 urte
bitarteko umeentzat
inf+: 945010505/615790677
araba@bertsozale.com
http://www.bertsozale.com/udal
ekuak2008.htm

ARMENTIA IKASTOLAK 15 URTE

SAIO IREKIAK
maiatzak 9: BERTSO TRAMA
(JULEN ZULAIKA)
maiatzak 16: APAIZAC HOBETO
(JON MAIA)
maiatzak 24: IKASTOLA EGUNA
(KULKI)
maiatzak 30: TANZANIA
BIZIKLETAK (KOLDO
ZUBIZARRETA)
gaztela ataria, 101-gasteiz
armentia@ikastola.net

GAUEKOAK-UDABERRIKO EGITARAUA

IRUDI TXOKOA III
maiatzak 9
FAST FOOD NATION
luis de ajuria aretoan, 20:00

LANTEGIEN ITXIERA JAIA
maiatzak 17
DANTZA & TXALAPARTA
ERAKUSTALDIA / GAUEKO
BERTSOAK, arabako bertsozale
elkartea / HERRI KIROLAK, betagari
elkartea / SUBLIMA&FRIENDS
kontzertua (perkusioa eta dj)
aldabe gizarte etxean, 22:00

euskera@gaukoak.com
www.gaukoak.com



DURANGOKO AZOKA: KARTEL LEHIAKETA

entrega epea: ekainak 27
saria: 1.300 euro
gerediaga elkarteon, astola auzoa,
26 (48220 abadiño)
inf+: 946818066
gerediaga@durangokoazoka.com

KREA PROIEKTUAK & KREA GAZTEA

SORTZAILEENTZAKO BEKAK
maiatzaren 15tik ekainaren
30era
inf+: 945150147
www.kreared.com

BERTSO TRAMAK

maiatzak 8
ignacio aldekoa kultur etxean, 20:00
arabako bertsozale elkarte

LITERATURA / HITZALDI ZIKLOA

maiatzak 14
HARKAITZ CANO
antolat.: eusko ikaskuntza
(hezuntza eta literatura saila) &
upv/ehu (hizkuntzaritza eta euskal
ikasketak saila)
gasteizko ehu-n, 10:30ean
**IBILBIDE ENOLOGIKOA
EUSKAL HERRITIK**
maiatzak 29
ARDO DASTAKETA (MIKEL
GARAIZABAL enologoaren eskutik)
16:00etan, gamarrako ostalaritza
eskolan
antolat.: gasteizko gamarrako
ostalaritza eskola
izen-ematea & inf+: 945258025

TXORIONAK!!

20 urte okupatzen 25 urte
komunikatzen
GAZTETXEA eta HALA BEDI
irritariaren urteurrenak
www.txorionak.org
EGITARAUA
maiatzak 2: GUATEKEA (60-70
hamarkada)
maiatzak 3: GRAFFTETXEA +
HIP-HOP GAUA

maiatzak 4: 'HAUTSITAKO
LEIHOA' FILMA
maiatzak 6: FILM LABURRAK
(Gasteiz)
maiatzak 8: kontzertua -
ETSAIAK+ANKERRAK+GARTZEN
maiatzak 9: antzerkia -
GAITZERDI
maiatzak 10: BAZKARI
HERRIKOIA
eta beste...
gasteizko gaztetxean

EGIN ZAZU EGIN ZAITEZ HALABELARRI!

945128855 / info@halabedi.org
www.halabedi.org



BERRIAK 5 URTE

GASTEIZKO EKITALDIA
maiatzak 15, osteguna,
20:00etan, Artiumen
egitaraua: BERRIAK 5 urte bideoa /
hitzaldia: aurrera begirako erronkak /
mokadua

LIBURUTEGI BIZIDUNAK

(ekainera bitartera)
gizarte etxeetako udal liburutegietan
[gonbit-txartelak: dagokion gizarte
etxeko liburutegian, jarduera hasi
baino astebete lehenagotik]
www.vitoria-
gasteiz.org/bibliotecas

UME&GAZTETXOAK:

HAURRENTZAKO III. ILUSTRAZIO
LEHIAKETA
apirilaren 14tik maiatzaren 24ra,
3-14 urte. ELEBIDUNA

HELDUAK:

SHESE-REN HERRIAN. FELIPE
URIASTE
SOLASALDI-PROIEKZIOA
maiatzak 8, 19 :00
el pilar g.e.-an

UMEENTZAKO EKINTZAK:

txikiak liburutegira tailerra / 'esaldi
bat, esaldi bi... kontu kontari',
'liburuen iratxoa', 'zerutik itsasora
biraka', 'kontu kontari, kantu kantari'
eta 'entzun, entzun' ipuin-kontalari
saioak. Info+ :
www.vitoria-
gasteiz.org/bibliotecas

LITERATUR SARIKETAK / KAZETARITZA SARIAK

ERNESTINA CHAMPOURCIN

(POESIA)
IGNACIO ALDEKOA (IPUINA)
BECERRO DE BENGUA (SAIAKERA)
epea : irailak 5
antolat.: a.f.a.-ren euskara, kultura
eta kirol saila
www.alava.net

PEDRO DE ATARRABIA (KONTAKIZUN LABURRA)

epea: irailak 12
antolat.: atarrabiako udala
948361029 / ccvillava@cin.es

RIKARDO ARREGI KAZETARITZA SARIA

epea: maiatzak 23
antolat.: andoaingo udala

KONTZERTUA: KEROBIA + LAUROBA

maiatzak 16
3. diskoaren aurkezpena
people aretoan, 21:00
prudencio maria verastegui 6.
01002 gasteiz (artium ondoan)
8/10 euro



GEU

laguntzailea:

GIZARTE EKINTZA

Obra Social

Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



EUSKARAZKO FILM LABURREN ZIRKUITUA GASTEIZEN

MAIATZAREN 14AN, 19:00ETAN, MONTEHERMOSO KULTURUNEAN
GEU ELKARTEAREN ESKUTIK

Hasita dago jada Topaguneak, Euskal Herri osoan zehar eskaintzen duen film laburren zirkuitua. Urtero bezala, Gasteizen Geu Elkartearen eskutik izango dugu emanaldiaz doan gozatzeko aukera. 10 film ikusgai eta guztien artean, ordubete inguruko emankizuna osatuko dute. Maiatzaren 14ean 19:00etan hurbildu zaitezte Montehermosora! Euskarazko film laburretan murgiltzeaz gain, 'BESTALDEAN' filmaren egile diren Trastaka taldearekin solasaldian aritzeko aukera izango dugu.

[info+: 945222153 (ainhoa) / geuelkartea@grn.es]

UNREST. 2007 (6'20") Gentzane Agirre Onaindia

Sinopsia: Nire buruaz beste egin dut. Begiak ireki ditut. Lurrean nago. Bizirik? Dena ilun dago, izaraz estalirik. Zer gertatzen ari da? Atsedena baino ez dut nahi.

ALL ABOUT EYES. 2007 (3'15") Gentzane Agirre Onaindia

Sinopsia: Bost emakumeren bidez errepresentatutako zinearen historiako etapa ezberdinak, zine mutua, westerra, klasikoa, tendentzi berriak (surrealismoa) eta garaikidea.

COLUMBA PALUMBUS. 2007 (4') Koldo Almandoz

Sinopsia: Ehiztari bat, eskopeta hartu, autotik jaitsi eta atea erdi zabalik gelditzen da. Tiro egiteko erabiliko duen talaiarantz abiatzen da. Baso eta errekaetako zeharkatzen ditu. Behatokira igotzen da.

AZKEN TRENA. 2007 (7'30") Mikel Alvarez

Sinopsia: Bikote batek hitzordua du geltokian. Mikel zain dago baina bera ote da mutil egokia? Aukera sortzen denean, heldu egin behar zaio azken trenan galdu gabe.

ITZALAK. 2007 (14') Iñigo Kintana

Sinopsia: 1954. urtea, Euskal Herriko herrixka batean, bikote gazte baten artean amodiozko istorio bat sortzen ari da.

MOMORRO. 2007 (6'35") Asier Mendoza

Sinopsia: Hirian haurrak desagertzen ari dira eta esaten dutenez Momorro da eruduna bere zaku beltzean eramaten baititu.

ARDAUAREN NEGARRA. 2008 (3'15") Logela Multimedia

Sinopsia: Zure usaina soilik dut, botila batean gordea, ardo botila huts oroitzapenez bete. Argumentutzat ardoa hartuta sortutako kanta eta irudiak.

IKUS-ENTZUNEZKOEN RALLYA (05, 06 eta 07ko lanak)

Topaguneak 'Gazte sortzaile Sariak' programaren baitan, 2005ean Eibarren, 2006an Aiaraldean eta 2007an Elgetan antolatutako Ikus-entzunezkoen Rally-etako film bana aukeratu du aurtengo zirkuituan eskaintzeko. Hiru film hauek, Ikus-entzunezkoen Rallyak ezarritako baldintzen arabera eginak daude:

- Egun bakar batean grabatu eta editatuak izan dira.
- Gehienez hiru minutuko iraupena dute.
- Antolatzaileek egunaren hasieran emandako gai edo aipu bat islatzen dute.

- ANTEJONUDOAK (Eibarren, 2005eko abenduaren 17an)

Egileak: Kalageli Taldea

- ZERUARI (Aiaraldea, 2006ko abenduaren 18an egina)

Egileak: Gaizka Fanarraga eta Ibon Antuñano

- BESTALDEAN (Elgetan, 2007ko abenduaren 29an egina)

Egileak: Trastaka Ekoizleak



BATEKMILA. EUSKAL MUNDUAK' ERAKUSKETA

GASTEIZKO AMARIKA ARETOAN

MAIATZAREN 31RA BITARTERA

ORDUTEGIA: asteleheneetik ostiralera, 18:00-21:00 / larunbatetan: 11:00-14:00 + 18:00-21:00 / igandeetan: 11:00-14:00

EGILEA: EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

ANTOLATZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA

EGITARAU PARALELOA.

euskara sustatzeko kultur ekintzak

ANTOLATZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA

KUDEATZAILE-ANTOLATZAILEAK: GEU ALDIZKARIA&ELKARTEA

MUNDUARI MUNDO'

DOKUMENTALARI BURUZKO HITZALDI MULTIMEDIA

ANDER ELORZA & JON URDANGARIN egileen eskutik

Maiatzak 7 (asteazkena), 20:00, Ignacio Aldekoa Kultura Etxean

'ARABAKO EUSKAL HOTSAK'

HITZALDI MULTIMEDIA (*datu berriak)

HIZLARIAK: KIKE FDZ DE PINEDO & JABI OTSOA DE ALDA

Maiatzak 21 (asteazkena), 20:00, Ignacio Aldekoa Kultura Etxean

KONTZERTUA: MAIXA, 'SENTITZEN NAIZ'

Maiatzak 27 (asteartea), 20:30, Parral tabernan

KONTZERTUA: IPARRALDETIK GASTEIZA

MAIALEN ERROTABEHETE + KIKI BORDATXO

Ekainak 13 (ostirala), 21:00, Aihotz - Matxete- plazan

APAIZAC HOBETO' ESPEDIZIOA.

KANADA 2006 (DIAPORAMA)

JON MAIAREN eskutik

Ekainak 17 (asteartea), 20:30, Parral tabernan

PIRRITX ETA PORROTX: “MAITE ZAITUT PILA-PILA PATATA TORTILA”

Pirritx eta Porrotx pailazo familia handi bat dira dagoeneko. Gure etxeetan eta gure bihotzetan lekua aurkitu duten koloretako lagunak. Olentzeroren bordaren aldamenean jaio ziren bi adiskide kantari hauek eta jolastea, ikastea eta bihurrikeriak egitea du bikote honek gustukoen. Zenbat urte dituzten galdetu eta hara zer erantzuten duten, “gaur zazpi, bihar bederatz, hurrengoan lau eta nahi dugunean hamalau. Zorte handia dugu!”. Gogoz hartu ditu GEUk baloreen igorle diren Euskal Herriko pailazo entzutetsuak.



Hogei urte pasa dira Katxiporreta taldea Lasarte-Orian Olentzeroren euskal jaialdia antolatzen hasi zela. Ordutik pailazoz, kantariz, dekoratzailez eta oro har artistaz beteriko taldeak, Pirritx eta Porrotx ditu Euskal Herriko umeen pailazo ezagunenak. Jose Maria Agirretxe, Porrotxek (43 urte, irakasle ikasketaz) hastapenetik darama euskara bultzatzeko jaiotako talde honetan. Berarekin batera hasi zen Takolo pailazoak. “Gure lana oso polita eta oso esker onekoa ere bada, baina sakrifizioa ere eskatzen du. Takolo gurekin izan da 17 urtez, leku batetik bestera, asteburuetan eta asteburuak ez direnak... Gu ere saiatzen ari gara honi neurria hartzen”, dio Porrotxek. Lasarte-Oriako mugak aspaldian gainditu zituzten euskal pailazo hauek arrakasta handiz gainera. “Batzueta, eta tamalez, zenbait herriri ezin garelara joan esatera heldu garelarik”, onartzen du Aiora Zulaika, Pirritxek (32 urte, Arte Ederretan lizentziatua). Afizioa zena ofizio bilakatu zuten Pirritxek eta Porrotxek.

“Umek gurekiko eta guk haiekiko maitasuna eta gertutasuna sentitzen dugu”, aitortzen dute Pirritx eta Porrotxek. “Gu beraiekin gaude etxean, kotxean, parkean... eta haiek gurekin ere, noski”, nabarmentzen dute. Zeinek ez du entzun edota dantzatu inoiz, ume nahiz heldu, ‘maite zaitut pila-pila patata tortila’ esakunea?

t. josune velez de mendizabal

a. katxiporreta

“Euskara Lasarte-Oriako karrketan alaitasunez ateratzea” izan zenuten duela hogei urteko helburua. Denboraren poderioz ordea, Pirritx eta Porrotx pailazoak Euskal Herri osoan ezagun bilakatu dira eta euskara bultzatzeaz gain beste-lako baloreak ere erakusten dizkiete umei, zergatik?

Hala da, denborak aurrera egin ahala euskarari eta alaitasunari balore gehiago gehitu genizkien; batez ere konturatu ginelako gure aurrean ere gurasoak genituela. Hortaz, euskaraz ondo pasatzeaz gain esan daiteke baterako hezkuntza ere lantzen dugula, gure kantetan eta bideoetan ikus daitekeen moduan. Horregatik eta besteak beste, familiaren gaia landu dugu, baita natura edota gaixotasunarena. Azken finean egiten duguna da Euskal Herriko gizartearen bizi ditugun eta kezkatzen gaituzten gaiak koloretako begi filtroetatik pasa eta ikuspuntu alai eta itxaropentsu batekin plazaratu.

EUSKAL HERRIKO GIZARTEAN BIZI DITUGUN ETA KEZKATZEN GAITUZTEN GAIK KOLORETAKO BEGI FILTROETATIK PASA ETA IKUSPUNTU ALAI ETA ITXAROPENTSU BATEKIN PLAZARATZEN DITUGU

Pailazoak algara eta barrearekin harremandu izan dira betidanik. Zuen ikuskinetan, aldiz, latzagoak diren gaiak ez dituzue baztertzen. Errealitateari, gordina bada ere, aurre egiten diozue.

Pailazo mota desberdinak daude, eta norberak bere bidea aukeratzen du. Kale animazioa dago, tradizionala, betiko zirkuko esketak..., eta guk gure aldetik egiten duguna da pailazo pertsonaien bidez istorioak landu. Baita musika, abesti eta esketxen bidez gai batzuen inguruan gure ikuspegia eman ere, gure bizipena erakutsiz. Pentsatzen dugu pailazoak haurrak eta pertsonak bezala bere sentimenduak dituela eta berak nahi badu barre egin dezake, baina triste ere jartzen da

eta haserretu ere egiten da. Guk diogu pailazoak sentimendu guztiak dituela bere baitan, baina nolabait ezkatuta daudela batzuetan. Haurren modura gu ere batzuetan triste gaude, pozik gaudenean pozik eta haserre gaudenean oso haserre, baina beti helburua alai egotea da, eta kezka eta arazo guztien gainetik alaitasunaren bila goaz. Gure iritziz tristurak eta pozak goxoagoak dira elkarrekin tartekatzen baditugu.



Horra hor Mari Motots. Gaixorik dago, zer gertatzen zaio?

Zazpi urte daramatzagu ospitaletatik bisitak eginez, *Aspanafoha* elkartarekin harremana dugu eta ikasi dugu elkarrekin arituz gero minbizia eta bestelako gaixotasunak xamurragok izan daitezkeela. Guk orainaldi eta etorkizun zorientzua nahi dugu gure laguentzat, baita gure herria eta munduarentzat ere. Eta hori elkartasuna landuz lortzen da.

**GUK ORAINALDI ETA ETORKI-
ZUN ZORIONTSUA NAHI
DUGU GURE LAGUNENTZAT,
BAITA GURE HERRIA ETA
MUNDUARENTZAT ERE, ETA
HORI ELKARTASUNA LANDUZ
LORTZEN DA**

**Eta hurrek nola barneratzen dute gai-
xotasunaren inguruko istorio hura?**

eta nola minbizia? Hurrek ordea ez. Hurrek helduek baino tabu eta arazo gutxiago dituzte eta errazagoa da. Hurrek oraindik aurreiritzi finkaturik ez dutenez ba kezka hauek guztiak naturalizat hartzen dituzte.

Familia mota bakarra ere ez dagoelako, hainbat elkarterekin batera liburuak argitaratu dituzue gai hau lantzeko.

Bai, *Cehitu* gay eta lesbianen elkarterekin,

kin aritu gara. Familia ezberdinak daude gure inguruan eta haurra zoriontsua izan daiteke familia mota guztietan, gu gara askotan aurreiritziak edota beldurrak ditugunak. Guk arazoak ikusten ditugu arazoak ez dauden tokian. Horregatik gure istorioak lantzerakoan haur zoriontsuen istorioak kontatu ohi ditugu. Adibidez, Mari Mototsen istoriorako harremanetan egon gara ospitaleko onkologo eta medikuekin,



Gure oinarria elkarlana da. Gu pailazoak gara baina gurekin batera musikariak, kameragileak, dekorazioa prestatzen daudenak eta abar daude. Istorioei dagokienez berriz, bat-batean sortzen dira, egunkaria hartuta edota telebista eta irratia entzunda. Gaixoak bisitatzera joanaren ondorioz, minbiziari buruzko ikuskizuna egitea bururatu zitzaigun. Hasieran jendeak burura eramaten zituen eskuak, nola pailazoak

Beroa haurrak harreran hartzen dituen elkarterekin, *Ume Alaia* adopziokoa, eta

**HAURREK ORAINDIK AURREI-
RITZI FINKATURIK EZ DUTE-
NEZ KEZKA HAUEK GUZTIAK
NATURALTZAT HARTZEN
DITUZTE**

banandutako gurasoen *Agipase* elkartere-

irakasleekin eta gaixorik dauden hurrekin. Ondorioz, 'Eskerrik Asko' diskoan hor agertzen dira medikua, irakasle bat eta haurra. Askotan isilpean eramaten delako gaia eta topikoak daudelako; nor bere errua dela pentsatzen duelako eta gu koloretakoak garenez ba horri ematen diogu itxura koloretu bat.

Duela hogeitau urte hasi zinetela lanean. Begi-bistan gizartea aldatu dela. Eta



umeak? Eta zuen lan egiteko modua?

Zuk esan duzu gizartea aldatu dela, gu ere agian aldatu gara... Gure munduan behar bada haurrek lehen, inozentzia luzaroan mantentzen zuten, baina hala ere umeek umeak izaten jarraitzen dute hemen eta munduko toki guztietan, irudimentsuak, jolastiak, alaiak, bihurriak...

Atzera eginez berriro ere. Euskara zenuten hastapeneko helburua. Zein da zuen aburuz euskararen egoera egun? Aurrera egin al du?

Zenbait arlotan aurrera egin du, baina beste batzuetan ez. Gu Euskal Herriko pailazoak gara eta gure hizkuntza euskara da. Gure lanean euskaraz aritzen gara, baina badaude beste neurri batzuk pailazoen esku ez daudenak. Komunikazio, Institutuzio eta gizartearen aldetik euskararen ofizialtasuna azken muturreraino eraman behar da eta hor utzikeria dexente dago, nahiz eta aurre-rapauso batzuk eman diren. Euskaraz bizitzea da gakoa ez soilik hizkuntza ezagutzea.

Beste lanbidetan bezala zuek ere zentsurarekin topo egin zenuten? Zein mundutan jarraitzen die justiziak pailazoei?

Gu Euskal Herrian bizi gara eta momentu honetan burujabetasunik ez duen herria da. Jarraitzen da pailazoei, kantariei, bertsolariei, eta zigortua dagoen horrekin bat egiten saiatzen den orori, euskara bultzatzea eta herriaren alde lan egitea, alegia. Gu pailazok ez gara burbuila batean bizi eta bai pertsona bezala, bai pailazo bezala konpromisoak ditugu. Guri boikota bizitzea tokatu zitzaigun eta guk gure lanarekin erantzun genuen, eta uste dut denborak gure tokian jarri gaituela eta azkenean aurrera egin dugu gure lan horretan sinesten dugulako. Erantzun onena izan da gure lan honetan sakontzea. Momentu beltz horietan elkartasuna jaso genuen eta beste noizbait norbaitek behar duenean guk gurea emango diogu.

Euskal Herrian badira mediatikoki oso ezagunak diren pailazoak, horra hor Txirri, Mirri eta Txiribiton. Nahastu al zaituztete inoiz?



Bizitza kanta bat da
guretzat hain justu
Neska mutilok hori dago
gure esku
Kantari eskolara
kantari jolastu
Kantari lotaratu
kantari amestu
Kantatzen ez duenak
zorionik ez du



Hasi etxetik
eta kalera,
Hasi kaletik
eta etxera...
Etxean eta kalean
berdin-berdin jolasean
Eskolan, lanean
tristuran eta pozean
Dakitenek erabiliz
ez dakitenek ikasiz
...



Denetik dago, baina haurren mundua eza-gutzen baduzu ezagutuko dituzu batak edo besteak. Hori futboleko bezala da... Euskal Herrian zorionekoak gara pailazo talde asko daudelako. Txirri, Mirri eta Txiribitonek duela 25 urte bidea ireki zuten eta gero atzetik beste batzuk etorri gara, dozena bat esango nuke: pailazo taldeak, magoak, antzerki taldeak, kale animatzaileak...

badugu aberastasuna eta estilo desberdina.

**GOIZERO MINUTU BAT HARTU
BEHAR DUGU ZEIN GAUZA
ONAK DITUGUN JAKITEKO
ETA GURE AURPEGIAN IRRIBARR
RE BAT ZINTZILIKATZEKO
EGUN OSOZ**

Aurten 'Maite zaitut' kanta katalanez egin dugu gure diskoan eta Lax'n'busto Kataluniako taldeak bertsiro rockero bat egin du. Horrek aukera eman die Euskal Herrian pailazoan mundua nolakoa den ezagutzeko. Elkarrekin izandako bizipena oso polita izan da. Katalunian esaterako ez da pailazo talderik, urtebetetze festak edo antolatzen dituzten horietakoak besterik ez...

Mundu osoan izango dira pailazoak, baina Euskal Herriko pailazoek bereizgarriak al dute besteekiko?

Mexikon egon ginen eta bertako pailazo batekin egin genuen harremana. Bertan ikusi genuena bakarka ibiltzen direla izan zen; han txisteei edota hitzei ematen diete garrantzi handiagoa, eta Euskal Herrian ohikoa da taldeka ibiltzea. Norberak aukeratu du bidea eta komunikazioa da azken finean gakoa.

GURE IRITZIZ TRISTURAK ETA POZAK GOXOAGOAK DIRA ELKARREKIN TARTEKATUZ

Eta Pirritx eta Porrotxen gakoa? Berezitasuna?

Gurea ere komunikazioa da, jolastu, kantatu eta gure istorioa bizi eta partekatzea da egiten duguna. Herri txikia izan arren dena ematen saiatzen gara, saioa bukatu eta muxuak banatzen ere ahalegintzen gara. Jendeak goxotasun hori eskertzen du. Amaierako kontu emozional eta fisikoa gure pertsonailetatik ikasi dugun zerbait da. Porrotxek eta Pirritxek asko eman diete Joxe Mari eta Aiorari. Pailazoak pertsonari sentimendu horiek igorri dizkio, "ilargia baina politagoa zara", "maite zaitut pila-pila patata tortila", txokolatezko muxuak banatzea... laudorio horiek jendeak eskertzen ditu.

"Katxiporreta", "ondo pasa tomasa", "kutxi-kutxi mari lutxi", ... horiek bai historia egin duten esakune gatzdunak!

Andoni Egaña eta Joxerra Gartzia hor ibili dira teorizatzen, "egoki hitz egin,

zuzen hitz egin eta jator hitz egin"...., baina gu pailazoak gara eta ume bati "Kaixo letxuga", "Kutxi-kutxi mari-lutxi" edo "Gero arte letxuga eta tomatea" esaten diozu eta hitz egiteko modu sinpatikoa da. Agian garrantzi gehiegi eman diogu euskararen zulentasunari, sentimenduei ez bezala. Hizkuntzarekin jolastu beharko genuke.

Koloretsuak ez soilik begietatik, baita belarrietatik ere...



Gure euskarri garrantzitsua da musika, bai. Mendizabalen kanta bat abesten dugu guk horrela dioena...

Bizitza kanta bat da guretzat hain justu Neska-mutilok hori dago gure esku Kantari eskolara kantari jolastu Kantari lotaratu kantari amestu Kantatzen ez duenak zorionik ez du

...Eta hau da gure filosofia. Beste kantu bat ere egin dugu 'Minutu bat goizero' izenekoa, gaixok irakatsi digutena. Zenbait gauza ditugun politak eta bakoirik gure inguruan egunerokotasunean, eta hala ere, gauza txar bakarra eta bost onak, eta txarrari soilik erreparatzen diogu. Horregatik egin dugu kanta hori. Goizero minutu bat hartu behar dugu zein gauza onak ditugun jakiteko eta gure aurpegiari irribarre bat zintzilikatzeke egun osoz. Diskoak dozenatik gora ditugu eta Hik Hasi aldizkari pedagogikoarekin ere kolaboratzen dugu.

Zer esaten diete Pirritx eta Porrotxek Gasteizko umei?

Jolasteko, bihurrikeriak egiteko, alaiak izateko, diren bezalakoak izateko; eta gurasoei esfortzu bat eskatuko genieke, euskara eskolan ikastearekin ez baita nahikoa, eta hor denok jarri behar dugula gure aletxo...

Hasi etxetik eta kalera Hasi...

Eta Gasteiza noiz zarete etortzekoak?

Araba bihotzean daukagu eta joango gara! ■

orribatean

euskararen jatorriaren 3. biltzarra

euskararen jatorriak euskararen jatorriaz 3. biltzarra antolatu du oka-irunean, maiatzaren 17an, udal-erri honetan aurkitutako idazkunek euskararen jatorria argitzen laguntza handia eskainiko dutelakoan. elkarteak egindako gai honi buruzko adierazpenean proposamenak ere bildu dira: oka-irun deitzea eta ez irun-veleia, ikerketa talde zabal bat egitea, indusketekin jarraitzeko



laguntza ekonomiko gehiago izatea, eta abar. biltzar honekin, idazkun hauek euskararen jatorriaren argitze prozesuan duten balioa azpimarratu nahi dute, bereziki, indarrean dauden teoria batzuk zalantzan jarri dituztelako.

hirugarren biltzar honetan josu naberen euskara sortzeko gure arbasoek erabili ziztuzten erroez arituko da, gutxien ezagutzen direnei tarte gehiago eskainiz. alfonsito martinez lizarduikoak euskaldunen migrazioek europa osora zabaldukoak protoeuskara aztertuko du, besteak beste, populazioen genetika, paleohizkuntzaritza eta paleoantropologia erabiliz.

ondoren, oka-iruneko indusketen balioaz arituko da patxi alaia, orain arte hedabideetan agertutako informazioa oinarritzat hartuta. arratsaldean, indusketak bisitatuko dira eta, ondoren, euskararen zazpi erroei buruzko mahai ingurua izango da, aurreko biltzarretan parte hartu duten adituek bideratuta. ondoren komunikazioen atala izango da, zenbait aurkezpen laburrekin. egitarautik kanpo, gauean afora izango da, eguneko ezken jatorriekin komentatzeko.

- noiz: 2008 maiatzaren 17an, larunbata

- biltzarren lekua: oka-iruneko udalerrian, langraiz herrian (araba)

- hizlariak: bittor kapanaga, jesus segurola, felix zubiaga, josu naberan, antonio arnaiz, antonio mendizabal...

- ekarpena: 45 euro (bazkaria barne). ikasle, langabetu edo familia bereko 3 kide: 30 euro.

- euskadiko kutxa: 3035 0057 97 0570056962 (jarri izen abizena + e-posta)

- izena emateko: euskararenjatorria@gmail.com / 946 004101

<http://www.euskararenjatorria.eu>

aranzabela ikastolak 25 urte... zorionak!

2007-2008 ikasturte honetan aranzabela ikastolako 25. urtemuga ospatzen ari da. hori dela eta, zentruko oihan guraso elkarteak, irakasleek eta bertako langileek hainbat ekintza burutzen dihardute. ekintza horien helburua bikoitza da. alde batetik, urte horietan aranzabela ikastolan egin den lana ezagutzera eman. bestalde, 25 urte horietan ikastolatik pasa direnen eta gaur egun gaudenon lokarri izango den ospakizuna burutu. honakoa, bere izaera: publikoa, d ereduakoa (mantenuzkoa eta murgiltzekoa), eleaniztasuna, bizikidetasuna, autonomia, autoestima, komunikazioa, interakzioa, parte-hartzea, sormena... kultura, natura, kirola...

armentia ikastolak 15 urte... urte askotarako!

hurbil, euskalduna, partaidetza soziala, gasteiztarra, eleanitza, giza baloreak, laguntza, irakaskuntza integrala, berrikuntza, hobekuntza, berdintasuna, kultura, kirola...

saio irekiak
maiatzak 9: bertso trama (julen zulaika)
maiatzak 16: apaizac hobeto (jon maia)
maiatzak 24: ikastola eguna (kulki)
maiatzak 30: tanzania bizikletaz (koldo zubizarreta)

gaztela ataria, 101-gasteiz
armentia@ikastola.net

"euskaldun dezagun lan mundua"... lanbide heziketa euskaraz gasteizen!

Dagoeneko EUSKARAZ ematen ari dena

Koldo Mitxelena:

Gorputz- eta kirol-ekintzak sustatzea (Goi Mailakoa).
Natur ingurunean gorputz- eta kirol-ekintzak gidatzea (Erdi Mailakoa)

Diocesanas (Molinuevo):

Administrazio eta finantzak (Goi Mailakoa)

Presentación de María:

Haur hezkuntza (Goi Mailakoa)

Francisco de Vitoria BHI

Gizarte integrazioa (Goi mailakoa)



EUSKARAZKO Eskaintza Berria

Ciudad Jardín:

Merkataritza (Erdi Mailakoa)
Administrazio eta Finantzak (Goi Mailakoa)
Informatika sistemen ustiapena (Erdi Mailakoa)

Diocesanas (Molinuevo):

Administrazio kudeaketa (Erdi Mailakoa)

Diocesanas (Nieves Cano):

Mekanizazioa (Erdi Mailakoa)

Gamarra:

Sukaldaritza (Erdi Mailakoa)
Goxogintza (Erdi Mailakoa)
Jatetxe eta tabernetako zerbitzuak (Erdi Mailakoa)
Jatetxe arloa (Goi Mailakoa)

Jesus Obrero:

Mekanizazioa (Erdi mailakoa)

Mendizabala:

Mekanika Bidezko Produkzioa (Goi Mailakoa)
Industri Ekipoaren mantenimendua (Goi Mailakoa)
Telekomunikabide eta Informatika Sistemak (Goi Mailakoa)
Ekipo eta instalazio elektroteknikoak (Erdi Mailakoa)

Eraikuntza institutua:

Hotz, girtza eta beroa sortzeko instalazioen muntadura eta mantenimendua (Erdi Mailakoa)
Lan arriskuen prebentzioa (Goi Mailakoa)

Francisco de Vitoria BHI

Erizaintzaren laguntza. (Erdi Mailakoa)

aek-k euskaltegi berria

datorren urrian, ikasturte berriarekin gasteizko lakuabizkara auzoan euskaltegia zabalduko dute. orain el pilar auzoko peru kaleko euskaltegia itxi eta berria zabalduko dute bartzelona kalea eta katalunia parkearen artean. aek-erentzat euskaltegiak euskara ikasteko tokia izateaz gainera, euskara auzoan eta hirian sustatzeko txokoak ere badira. horregatik, ahaleginduko dira gasteizko lakua auzoan eta baita inguruko auzoetan ere (abetxuko-sansomendi) helduen euskalduntzerako dagoen hutsunea betetzen, kalean ere euskara bultzatzeko. inaugurazioa irailaren 13an izango da. euskaltegi berriari buruzko informazio guztia (kokapena, argazkiak, iritziak...):

<http://www.blogak.com/lakuaeuskalduna>

TRANBIA GASTEIZEN

Tranbiaren eraikuntzak eztabaida handia sortu du Gasteizko hirian. Beharrezkoa ikusten dutenak daude, baita batere ados ez daudenak ere. Horratx hiru iritzi:

t./a. josune garcia de bikuña

- Uste al duzu tranbia beharrezkoa dela Gasteizen?
- Beharrezkoa zen erdialderaino sartzea edo nahikoa Lovaina plazaraino lotzea?
- Asmoa al duzu erabiltzeko?



Jokin Barragan, ikaslea

- Ez, autobus urbanoekin nahiko azpiegitura baitago arlo publikoan.
- Ez, arrisku bat delako erdialdetik dabilen jendearentzat eta bidegorri eta oinezkoentzako ibilbideen beharra handiagoa da, baita merkeagoa ere.
- Ez, nire eguneroko bizitzarako ez baitut behar.



Eva Garcia, funtzionarioa

- Ez. Urbanoen sarea hobetzea beharrezkoa da uste dut. Ez nago trenbidea egitearen kontra, baina ez dut uste ondo planteatu dutenik.
- Arazoa ez dut hor ikusten, baizik eta norabide bakarreko ibilbidean.
- Ez dut erabiliko ibilbideak ez dituelako nire beharrak asetzen.



Juani Quintana, etxekoandrea

- Ez dakit beharrezkoa zen, baina agian urbanoen ibilbidea hobetzearekin nahikoa zatekeen gasteiztarron beharrak asetzeko.
- Agian arriskutsua izan daiteke erdialdean jende asko dabilelako.
- Behar izanez gero bai.

Ume zaintza

Ikastola, haur eskola,
eskolaz kanpoko ekintzak...

Eraman eta jaso

Goizez, arratsaldez, gauez... Orduka

Deitu eta aurrekontua eskatu
konpromisorik gabe

945 23 53 78

info@zainbide.com



Dato kalea, 14-16 - 3. A
01005 Vitoria-Gasteiz

www.zainbide.com

‘BATEKMILA. EUSKAL MUNDUAK’ ERAKUSKETA

EUSKAL UNIBERTSOAREN KALEIDOSKOPOA

Nolakoak gara euskaldunak gaur egun? Zerk egiten gaitu euskaldun gaur egun? Zerk egiten du euskaltasuna? Galdera horiek erantzuteko helburuarekin martxan jarri da ‘Batekmila. Euskal Munduak’ izenburua duen erakusketa ibiltaria. Ustaritzen egoitza duen Euskal Kultur Erakundeak (EKE) eginda, eta Arabako Foru Aldundiak antolatuta, Gasteizko Amerika aretoan ikusgai egongo da maiatzaren 31 arte. Bertan, bisitariari euskararen eta euskal kulturaren praktika eta bizipen garaikideak ezagutzeko eta galdezkatzeko gonbita egiten zaio.

t. edurne begiristain **a.** edorta sanz

Modu dibulgarzaile baten bidez, euskal munduak bisitariari hurbiltzeko aukera ematen du ‘Batekmila. Euskal Munduak’ erakusketak. Horixe da Batekmila-ren balio erantsia. Leiho bat da, kultura eta hizkuntza batek lotzen dituen nortasun batzuei begira irekitzen den leihoa. Erakusketara hurbiltzen den orok euskal munduaz ideia bat izan dezan egindako erakusketa. ‘Batekmila. Euskal Munduak’ erakusketa artista garaikideen, argazkilarien, idazleen, musikarien eta pelikula egileen begiradez osatutako egiazko kaleidoskopo bat da.

Interaktiboa da. Multimedia osagaiez beteta. Bideoak, musika, olerki irakurketak eta baliabide digitalak bisitariaren eskura jartzen ditu Batekmilak. Interaktibotasunari esker, gainera, ikusleek erakusketan parte hartu ahal dute eta aberasteko aukera izan. Lau hizkuntzatan dago eginda (euskaraz, frantsesez, gaztelerez eta ingelesez), jatorri desberdinetako bisitariari leihoak zabalduz. Ideia nagusi batzuen gainean landutako erakusketa da, bisitariarentzat mezu esanguratsuak proposatzen dituena. Baina mezu horiek ez dira modu sinple batean agertuko, idatziz, esaterako; alabaina, prozedura eszenografiko eta teknologiko desberdinak erabiltzen dira mezu horiek irudikatu eta aditzera emateko. Modu horretan, norberak bere erara ulertu eta barneratuko





ditu mezu horiek. Erakusketaren egile Euskal Kultur Erakundearen arabera, hiru "gako-mezu" eskaintzen ditu Batekmila erakusketak: euskara, euskal kultura, eta nortasun bizikidea. Eta mezu horiek deskodetzeko eta haien gainean gogoeta egiteko erronka luzatzen dio bisitariari.

Lehen mezua, euskara

Euskara, euskal munduen bihotzean dagoen hizkuntza. Horixe, lehen mezua. Europako hizkuntza zaharrena eta misterioetsuenaren doinuak entzuteko parada ematen du erakusketak. Hau da, euskara familiaren komunikazio tresnatik haratago, gaur egungo komunikazio hizkuntza

Ibilbide alternatiboa

Lau modulutan banatuta dago erakusketa, baina ibilbidearen erritmoa alternatiboa da. Hau da, ez da zertan modu kronologiko batean jarraitu. Hala, denborari kasurik ez egiteko hautuari esker, bisitariak begirada arinago bat izan dezake euskal kultura salbatzearen garrantziaz.

Lehenengo moduluak bisitariari bidaia bat proposatzen dio euskal munduan zehar, kulturaren, ekonomiaren, geografiaren eta arlo sozialaren bidez. Murgiltze eremu gisa antolatu dute lehen gune hau, bisitaria "unibertso batera" gonbitatuta baitago bertan. Lehen zati honetan, bisitariak euskal munduen egunerokotasuna ikusten eta entzuten du, herriaren soinu eta irudi koloretsuak apurka ezagutzuz. Didaktikoa bainoago, poetikoa da lehen gunea, euskal munduetan bidaiatzeko gonbita egiten duena. Euskal ikonografian murgiltzeko parada ematen du, argazkiak, hizkiak, irudiak eta soinuak lagun.

Euskal kultura praktika ezberdinen bidez ezagutzeko parada eskaintzen du **bigarren moduluak**. Soinuek eta bideoek euskal kulturaren multimediarri erreparatzen laguntzen diote bisitariari. Lehenik, soinuz betetako unibertsoa agertzen da, eta gero soinua eta irudia apurka-apurka agertuko dira ahozkototasunetik musikalitateraino joanda.

Euskaldunek beren nortasuna nola bizitzen duten erakusten du **hirugarren moduluak**. Hor bisitariak giro desberdinetan sartzeko aukera dauka. Besteak beste, erreportaje laburrak jatorrizko bertsioetan erakusten zaizkio, euskal diasporan kultura nortasunak duen bizipenaren inguruan. Eta, halaber, Eduardo Chillida eta Jorge Oteiza euskal artisten ibilbidea aurkezten da, eta bisitariak bere irudiko euskalduna bilatzen du, munduko euskaldunen erretratu galeria batean.

Mediateka da **laugarren moduluak**, kultura jardueren trukaketa-esperimentazioaren jarraipena. Mediateka digilata kontsultatu eta bere esperientzia propioez aberasten du solasgune sortzaile batean eta bereziki erakusketarentzat sortutako MMS zenbaki baten bidez. Hala, erakusketaren bisitaren ondoren, bisitariak euskal munduei buruzko bere ikuspegiaren "postala" edo "oroitzapen argazkia" sortu dezake, eta euskal munduekin zerikusia duen MMS bat bidali dezake, argazkia eskuko telefonoarekin edo argazki makinarekin hartuta. Eta bisitarien ekoizpenok, galeria batean



BATEKMILA. EUSKAL MUNDUAK' ERAKUSKETA

GASTEIZKO AMARIKA ARETOAN

MAIATZAREN 31RA BITARTERA

ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera, 18:00-21:00 /
larunbatetan: 11:00-14:00 + 18:00-21:00 / igandeetan: 11:00-14:00

EGILEA: EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA

ANTOLATZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA

BATEKMILA ERAKUSKETA. EGITARAU PARALELOA

ANTOLATZAILEA: ARABAKO FORU ALDUNDIA

KUDEATZAILE-ANTOLATZAILEAK: GEU

ALDIZKARIA&ELKARTEA

KULTUR ERROTA (GEU ELKARTEAren programa)

KONTZERTUA: MAIXA, 'SENTITZEN NAIZ' (pop musika)

(Koldo Uriarte, pianoan; Iosu Izagirre, kontrabaxuan; Hasier Oleaga, baterian; Alejandro Mingot, gitarran; eta Maixa Lizarribar, ahots eta trikian)

Maiatzak 27 (asteartea), 20:30, Parral tabernan

APAIZAC HOBETO' ESPEDIZIOA. KANADA 2006

(DIAPORAMA)

JON MAIAren eskutik

Ekainak 17 (asteartea), 20:30, Parral tabernan

BESTELAKO EKINTZAK

MUNDUARI MUNDO' DOKUMENTALARI BURUZKO HITZALDI MULTIMEDIA

ANDER ELORZA & JON URDANGARIN egileen eskutik

Maiatzak 7 (asteazkena), 20:00, Ignacio Aldekoa Kultura Etxean

'ARABAKO EUSKAL HOTSAK' HITZALDI MULTIMEDIA (*datu berriak)

HIZLARIAK: KIKE FDZ DE PINEDO & JABI OTSOA DE ALDA

Maiatzak 21 (asteazkena), 20:00, Ignacio Aldekoa Kultura Etxean

KONTZERTUA: IPARRALDETIK GASTEIZA

MAIALEN ERROTABEHERE + KIKI BORDATXO

Ekainak 13 (ostirala), 21:00, Aihotz -Matxete- plazan



bihurturik, teknologia berrien bidez adierazten dela erakutsi nahi du. Baina, hori baino gehiago ere: hots, Euskal Herria eleaniztasun eremua bihurtu dela, eta euskara beste hizkuntza batzuen bizikide dela eta haiengandik aberastu ere egiten dela. Horrela, hizkuntza trukaketa eta bizipen horietatik kultura pentsatu, sortu eta bizitzeko modu berezi bat atera dela ikusteko aukera dauka bisitariak.

Euskal kultur unibertsoa, bigarren

Inguruko kulturen ekarpenez jabetuta, euskaldunek beren kultur unibertsoa euskararen inguruan sortu dute iraganean eta gaur egun ere. Bigarren mezuaren edukia da hori. Baina, kultur animazioa ekitaldi folklorikoetatik haratago ere badela helarazi nahi du Batekmila erakusketak. Bertsolaritza da, esaterako, hobekien erakusten duena nola euskal ondarearen kultur adierazpenik tipikoena gaurko munduari egokitu zaion. "Mendez mende laborantza mundutik etorritako koblariek eramanik, bertsolaritza Euskal Herriko hiriguneetako euskaldun gazteek gehien maite duten adierazpen bihurtu da, beste herrialde batzuetan rap musika bezala", azaldu dute EKEtik.

Nortasun bizikidea, azkenik

Eta horren ondorioz iristen da bisitaria hirugarren mezua barneratzerantz: elkarren arteko trukaketak ere euskal kulturaren paisaia aldatzen duela. Euskaldunek ere jakin izan dute, munduko beste tokietako nortasunek bezala, aldaketa horiei egokitzen eta beren nortasun ondarea moldatzen. Eta gaur egun, egokitze horrek euskal kultura bizitzeko modu desberdinak sortu ditu. Hala, erakusketako bideoetan agertzen diren lekukotasunak hori islatzen dute. Diasporakoek edo lekukoek euskaltasuna nola bizi duten azaltzen dute, ikuspegi desberdinak eskainiz. Besteak beste, Frantxua Bidaurreta 21 urtetan AEBetara joana eta San Frantziskoko euskal zentroko arduraduna, Serge Betsen errugbi jokalaria, Jon Maia bertsolaria eta idazlea, edota Martin Berasategi sukaldariaren lekuko zuzenak ikusi eta entzun ahal dira ■


EUSKAL CURRICULUMA

'HERRI JAKINTZA NAHI DUGU ETA JAKINTZA HERRIARENTZAT NAHI, MUNDU BERRI BAT NAHI DUGU HERRI BAKOITZAK BERETIK EMANEZ'

Bost urte eta erdi igaro dira jada, Udalbiltzak, EHIK (Euskal Herriko Ikastolen Konfederazioa) eta Sortzen-Ikasbatuaz elkarteak Euskal Curriculumaren definizioa egiteko hitzarmena sinatu zutenetik. Eta azkenik, prozesu luze honen ostean, ekainaren 21ean egingo den batzar nazionalan onetsiko da. Euskal Herri osorako eta hezkuntza eredu guztientzat balagarria izango den curriculumaz ari gara, herri partaidetzaz eraikitakoa eta euskal kulturaren transmisioa eta eraberritzea bermatzeko helburua duena.

t. ainhoa ariaga a. edorta sanz

Amaia Urrutia Sortzen-Ikasbatuaz elkarteko Arabako arduradunak azaltzen digunez, "Curriculum espezifikoren kontraste fasean" daude momentuan. Ekainean eragile desberdinen ekarpenak eta kontrastatzen diharduten curriculum espezifikoa biltzen dituen "liburukotea" izango da asanbladak onartuko duena.





AMAIA URRUTIA, Sortzen-Ikasbatuaz elkarteko Arabako arduraduna

SORTZEN-IKASBATUAZ

Nafarroako Sortzen-en eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Ikasbatuaz-en batuketak sortu zuen SORTZEN-IKASBATUAZ elkarteak orain dela 8 urte. Euskal Eskola Publiko Berriaren alde egitea da elkartearen helburua eta horretarako, sare publikoko ikastetxeetan parte hartzen duten aktore guztiak hartzen ditu bere barnean: ikasleak, irakasleak, gurasoak eta eskola langileak. Sortzen-Ikasbatuaz kideek argi dute nolakoa izan behar duen Euskal Eskola Publiko Berriak: "euskalduna eta eleanitza, autonomia, langileen iraunkortasuna eta finkotasuna bermatzen duena, demokratikoa zinez, kalitatezkoa eta doakoa benetan". Bide honetan, Euskal Curriculumaren sorrera eta egikaritze lanetan dihardu buru-belarri, Udalbiltza eta Ikastolen Konfederazioarekin batera.

“Euskal Herriko gero mundua

Nondik dator Euskal Curriculumaren sorrerako beharra?

2003 urtean galdetegi bat egin zitzaion 2.200tik gora ikasleei. 100 itemeko inkesta eratu zen eta bertan, Euskal Herriari buruzko galderak, Europari buruzkoak eta munduaren ingurukoak nahasten ziren. Euskal Herriko ezaugarriari zegokienean, 4.1eko puntuaketa ateratu zuten batez beste, eta Europa eta munduaren ingurukoan atalean 6.3koa. Honek argi adierazi zuen beharrezkoa zela euskal edukiak lantzen dituen Euskal Herriatik abiatutako curriculum proiektu bat. Euskal Herriko ikuspegi bat landu behar da lehenengo, gero mundua ikusteko. Bestela mundua ikusten dugu eta gero begiratzen diogu Euskal Herriari.

EUSKAL CURRÍCULUMAK EZ DAUKA INOLAKO INDAR NORMATIBORIK. HERRI MUGIMENDU BAT DA ETA INDAR SOZIO-POLITIKOA DA ATZETIK IZAN BEHAR DUENA

Derrigorrezko hezkuntza bukatzean, Euskal Herriko ikastetxe batean ikasten duen gazteak zeintzuk ezagutza jaso beharko litzuzke oinarrian?

Azken finean 0 urtetik 16 urtera bitartean luzatzen da euskal curriculum eta bertan batuko dira ikasle horrek barneratu behar dituen kontzeptuak. Baina euskal curriculum ez da estatikoa, dinamikoa da, eta horregatik eraberritzen joan beharko da beharren eta garaien arabera. Irakasle bakoitzak ere, bere praktikarekin elikatu beharko du curriculum. Norabide bikoitzeko prozesua izan behar da.

Gizarte zientziei dagokienean adibidez, matematikan ez bezala, badaude ezagutza minimo batzuk. Kronologikoki Euskal Herriko historiaren arabera lotuta joan behar dira gizarte zientziak. Gaur egun ez

ikuspegi bat landu behar da lehenengo, ikusteko”

da horrela gertatzen. Egun, Espainiako edo Frantziako historia hartzen da kronologikoki, eta modu isolatuan Euskal Herriko atal bat.

Ekainaren 21ean onartuko da Euskal Curriculumama 5 urte eta erdiren ostean. Zer ekarriko du honek?

Ikuspegi herritarra lantzea. Euskaldunok ere mundua ikusteko era bat daukagu eta ez bakarrik hizkuntzagatik, baizik eta iraganetik dugun kultur zama horrengatik guztiagatik ere. Irakasleak horretan formatzeko beharra ekarriko du, hau aplikatzeko ikastetxeek lan bat egin beharko dutela. Administrazioak ez du baliabiderik jarriko aplikaziorako, Euskal Curriculumamak ez baitauka inolako indar normatiborik. Herri mugimendu bat da eta indar sozio-politikoa da atzetik izan behar duena. Hau da, curriculumama aurrera eramateko, batez ere behar duena mugimendu pedagogiko bat da, eta horretara jo behar dugu.

Ikastetxeetara joaten gabiltza, curriculum honen definizioan parte har dezaten eta inplikatu daitezten. Euskal Herri mailako eragile desberdinak ere horretan inplikatu ditugu. Hau ez baita bakarrik mugatuko ikastetxeetara, hau hezkuntza eredu guztietarako baliogarria izango da.

NAHIZ ETA EUSKAL CURRICULUMA DEITU DIOTEN, DEKRETUA GAZTELERAZ ATERA ZEN, ETA GENERO IKUSPEGITIK OSO BAZTERTZAILEA DEN HIZKUNTZA ERAN GAINERA

Nolakoa izan da onartu arteko prozesu luze hau?

Urrats desberdinak izan ditu prozesuak, jende askok parte hartu duelarik. Adituek, herri mugimenduak eta irakasle talde batek ere egin du proposamen teknikoak.

Zein oztopo topatu dituzue definizio fase honetan?

EAEko Curriculum Dekretua VS Euskal Curriculumama

Gizartean, nahasmena sortu da EAEko Curriculum Dekretuaren eta Euskal Curriculumaren artean. Hezkuntza Sailak abian jarri duen dekretu ofizialari, Euskal Curriculumama deitu dio, horrela, herritik datorren hezkuntza sistema proposamen berria estaliz. Ildo horretatik, oso garrantzitsua da biak dituzten desberdintasun nabariak gogoan izatea eta kontuan hartzea. “EAEko dekretua, Espainiar estatuko LOE bera da gauza gutxi batzuk aldatuta”, azaltzen digu Amaia Urrutiak. %55 Madrilek zehaztutakoa da eta gelditzen den %45 horren kudeaketa ez omen da erreala. Euskal Curriculumamak Euskal Herria ikuspegia lantzen du, dekretu ofizialak aldiz, herria banatu egiten du Madrileko ikuspegitik eta autonomia oinarritzat hartuta. “Nahiz eta Euskal Curriculumama deitu dioten, dekretua gaztekeraz atera zen, eta genero ikuspegitik oso baztertzailea den hizkuntza eran gainera”, diosku Amaiak. Beste desberdintasun askoren artean, ofizialak diren bi hizkuntzak maila berean hartuko dituela esaten du curriculum ofizialak, baina Euskal Curriculumaren ikuspegia ez da hori, izan ere, hizkuntza bien abiapuntua ez baita bera. Aipatzekoa da, etorkinak euskara ikastetik salbuetsi egiten dituela dekretu ofizialak.

Hasiera batean Hezkuntza Saila egon zen honetan, baina gaur egun ez dago. Bere garaian dirua eman zuen egitasmoa interesgarritzat jotzen zuelako. Gaur egun Hezkuntza Sailak bere dekretua atera du eta indarrean dagoena da. Ekarpinak egin genizkien dekretu horretan sartzeko, baina isolatutako gauzak hartu zituzten dekreturako. Oso hanka-motz geratu da. Gaur egun erakundearekin ez daukagu inolako harrema-

nik, Euskal Curriculumaren definizioa amaitzen gaude paraleloki. Guretzat, erakundeak dekretuarekin egin duena iruzur bat da. Gainera, dekretu ofizial horri Euskal Curriculumama deitu diote nahasmena sortzeko.

Beraz, definizio etapa amaitzear dago eta gainean jadanik aplikazio etapa. Nola egingo diozue aurre datorrenari?

Momentu honetan, ikastetxez ikastetxe gabiltza, aplikazioari begira bakoitzak hartzen duen konpromiso maila aztertzearen. Definizioan parte-hartzea eskatu genienean, baldintzetako bat aplikazioaren konpromisoa hartzea zen. Ikusita dago EAEko curriculum ofizialaren %55 Madriletik datorrena dela eta %45a Autonomia Erkidegotik. Iparraldeko kasuan %100a dator Parisetik. Baina eskolan bertan gertatzen den errealitatean, tarte bat sortzen da. Curriculum ofizial horretatik eskoletan egunerokotasunean ematen den tarte. Askatasun puntu hori ere erabiliko dugu Euskal Curriculumama sartzeko. Hori alde batetik. Bestetik, ikastetxe-ko proiektuetan eragin nahi dugu, bultzatu nahi duguna da Euskal Curriculumama izatea ikastetxe hezkuntza proiektuak antolatze-ko oinarria.

Aplikazioak beraz, maila pertsonalean eta ikastetxeen inplikazioa eskatzen du. Ikastetxeetako hezkuntza proiektuan txertatzeaz gain, prozesuko eragileek eta Euskal Curriculumamak elkar elikatzea izango da aplikazioa aurrera eramateko beste alderdia.

Ofiziala den EAEko Dekretua jarraitzea eta Euskal Curriculumama praktikara eramatea bateragarriak izango dira?

Kasu askotan ez. Baina ikusi beharko da. Oso desberdinak dira, horrengatik, besteak beste, testuliburuarekin, gure herriaren ikuspegi desberdinekin eta, adibidez, erlijioaren kontuarekin zuzenean egin dezakete talka ■

Andre Maria Plaza
Olagibel,33
(Los Herrán bidegurutzean)
GASTEIZ

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Eskaintzakak 08/05/31ra arteko balioa du

EGUR

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.
Golain Industrialdea
Tl/Fxo: 945 465 921
Tl. 627 417 747
info@egur.es
www.egur.es
01171 Legutiano (Araba)

**eusko
alkartasuna**

**Gazte
Abertzaleak**

www.euskoalkartasuna.org
c/ san prudencio 3
gasteiz-erdialdea

Euskeraz Araban BAI

www.gazteabertzaleak.org
c/ vicente manterola z/g
zaramaga

Iturrieta Sagardotegia

GAZKEN DENBORAKIDIA

ostegunetik
igandera
irekita

gainontzeko
egunetan
erreserbarekin

Hramaio. Hrraga auzoa, z/g
Tl.: 945 445 385

IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • Tl. 945 430 073

HELADOS
Nestlé

NIKOLAS GARDNER



1975. urtean etorri zen Nikolas Gardner britaniarra Gasteizera udaleku batzuetan begirale gisa eta geroztik hemen bizi da. Hogeita bost urtez ibili zen Eusko Jaurlaritzan lanean euskararekin lotutako kontuetan, Hezkuntza Sailean lehenengo, Kultura Sailean gero. Orain dela urtebete Euskaltzaindiak Euskararen historia sozialaren inguruko proiektu batean parte hartzeko aukera luzatu zion eta horretan dabil goizetan.

t. josune garcia de bikuña
a. edorta sanz

Zein da zure biziorik handiena? Bizio handirik ez daukat, trankil bizi naiz. Ezinbestekoa al da biziorik izatea?

Non jaten da hobeto, zure jatorriko herrian edo Gasteizen? Bietan, han eta hemen, jakinez gero nora joan. Hemengo janaria oso aberatsa da eta gustatzen zait eta han, bertakoa bainoago ohitura handia baitago janari prestatua jateko, beste herrietako janaria dastatzeko aukera zabalagoa da. Orain, alabak beti esaten dit gezurra dela Ingalaterran gaizki jaten dela.

ARRATSALDEETAN, ARABAKO NATURA INSTITUTUKO (ANILIAN) IDAZKARI LANAK EGITEN DITU INGELESAZ GAIN, ITALIERA, FRANTSESA, LATINA, GAZTELANIA ETA EUSKARA EZAGUTZEN DITUEN NIKOLASEK.

Zerk ekarri zintuen Euskal Herrira? Despistez neurri batean, zeren nire asmoa Italiara joatea zen.

Zerk eman zizun atentzio gehien hasiera batean? Gauza batek baino gehiagok. Bat, kulturalki monolitikoak zinetela, denak hemengoak. Ingalaterran kulturantzitasun hori, hemen gero eta gehiago ikusten duguna, oso present zegoen; eta gero, pentsatu hau 1975ean zela, halako zaharkitu itxura gauza guztietan, zaharkitutako mundu batean aurkitu nintzen.

Nola definituko zenuke zure burua? Bere buruarekin eta munduarekin gustura

egoten ikasten ari den pertsona bezala.

Liburu bat? Bat aipatzearren Rohinton Mistry-ren 'A fine balance', euskaraz, 'Oreka fina'.

Zer da Gasteizek duen onena?

Lasaitasuna eta niretzat naturatik ez oso urrun egotea. Hau ez da metropoli batean egotea bezala. Hemen gauzak hurbil daude eta hiri handietako estres hori ez dago.

“BERE BURUAREKIN ETA MUNDUAREKIN GUSTURA BIZITZEN IKASTEN ARI DEN PERTSONA NAIZ”

Eta txarrena? Ni oso gustura nago hemen, ez dut ezer txarrik ikusten.

Gasteizko gaua non? Ez naiz inoiz oso parrandazalea izan, ni eguneko txoria naiz. Gainera denbora libre gutxi izaten dut.

Natura oso gustuko duzu baina zein nahiago, mendia ala itsasoa?Dudarik gabe, mendia. Itsasoa bainatzeko ez, baina paseatzeko ere oso ondo dago eta itsasertzean oso landaredia bitxia dago.

Zerk bultzatu zintuen euskara ikastea? Hizkuntzekiko zaletasunak, txikitatik izan dudana eta aitari zor diodana.

Euskaraz bizi daiteke Gasteizen? Egun osoz eta esparru guztietan, nire kasuan behintzat ez da horrela suertatzen, baina ez nau gehiegi kezkatzen. Badaukat norekin hitz egin euskaraz, hainbat harreman badi-tut euskaraz, eta ez dut uste euskaldunek hori baino askoz gehiago eska dezaketarik gaur egun eta agian inoiz ez.

Nola ikasi zenuen euskaraz? 1975ean euskara ez zegoen oso present kaleetan. Susmoa dut lehen kontaktuak izango zirela hormetan ikusten nituen graffiti-eti esker. Gero talde txiki bat ezagutu nuen Deustuko Unibertsitatean euskaraz mintzatzen zena. Uste dut hilabete-ko ikastaro bat egin nuela behin eta ez zitzaidan gustatu; irakaslea saiatzen zen baina ez zen niretzat, eta nik nahiago nuen, hizkuntza bat baina gehiago ikasita nuenez, nire kabuz ikastea. Orduko problemarik nagusiena zen euskara ez zela publikoa, ez zen oraindik ofiziala, askotan gaizki ikusia eta ez zela erraza aurkitzea norekin hitz egin.

Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?

Euskaldunak elebidunak edo eleanitzak izango dira ezinbestean, eta hori onartzen ez dugun bitartean arazoak izango ditugu euskara bermatzeko orduan. Dena den, tokatu izan zait bai kanpotarrei atzerrian azaltzea zer gertatzen den hemen euskara kontuetan, bai hona etorri direnei ere, eta badago gauza komun bat: hemengook botila erdi beteta baino ez ikusten dugun bitartean, atzerrian miretsita daude ikusita hemen botila erdi beteta dagoela. Baina nik gutxienez bi arazo larri ikusten ditut, kulturantzitasunak dakarren hizkuntz aniztasuna, eta bestetik, ez dakigula oraindik klima aldaketak zein larritasun ekarriko dituen. Migrazio handiak egongo direla diote eta horrek euskararekiko kezka bigarren plano batean utziko duela dirudi.

HARTU ZURE DENBORA

TESTUA: NEREA SANCHO SEXOLOGOA ETA PSIKOLOGOA

DENBORA DA GEURE-GEUREA DUGUN ONDASUN BAKARRA. SEXUALITATEA ARRISKUAREKIN, BELDURRA-REKIN, GAIXOTASUNEKIN ETA BETEBEHARREKIN LOTU DUGU URTE LUZEZ. GAURTIK AURRERA, SEXUALITATEA ETA AISIALDIA ESKUTIK HELDUTA DOAZELA IKUSTERA GONBIDATU NAHI ZAITUZTEGU.

Presaka bizi gara, baita aisialdian ere. Hiri bat lau egunetan ikusi nahi dugu, eta atsedetik hartu gabe zeharkatzen dugu. Nahi baino lehen eiakulatzen duten gizonak ugaritzeak ez gaitu harrituko. Baldintza estresatu hauek, nola dastatu, bada, gure kitzikapen uneak? Ikuspuntu aldaketan egon daiteke gakoa: adibidez, aurrerantzean ahalegina egin dezakezu sexualitatea eta aisialdia beste era batera lotzen, eta bizitza sexuala beste arloen aurretik ipintzeko aukera balora dezakegu, lehentasun bihurtuz.

Baina, nola egin dezakegu hori? Egunero batetik bestera gabiltza, mila gauza egin nahian... baina bat-batean, gaixotzen garenean, munduko denbora guztia daukagula ikusten dugu. Une horietan, lehentasuna hartzen du gure osasuna zaintzeak; denbora benetan erlatiboa baita. Jabetu behar dugu, lehentasunezkoztat jotzen ditugun gauza horietan joaten zaigula denborarik gehien.

Ikuspuntu berriak hartzen has gaitezke, beraz. Esaterako, bat-batekotasunaren mitoa albora dezakegu; oso zabaldua dago bat-batekotasunaren mitoa: kontaktu erotikoek bat-batekoak behar dute izan, ezin dira planeatu. Ikuspuntu honek, mugatu egiten du sarritan bizitza sexuala garatzea eta aberastea. Jende askok uste du, kontaktu erotikoak bat-batekoak ez badira, orduan ez direla benetako jokabide erotikoak. Ideia hau tranpa potoloa izan daiteke.



Bost zentzumenak

Denbora librea ondo antolatzen ez denetan, askotan, galdu egiten da. Gure gaiarekin berdin gerta daiteke. Ohiko bikotea badugu, txandaka, bat izan daiteke festa erotikoen arduraduna, eta berak har dezake ekimena, festa horren xehetasunez arduratuz.

Batzuetan, aurretik izandako esperientziak onak izan ez badira, desanimatu egin gaitezke, eta ondorioz, topaketa ero-

tikoari edo autoerotismoari bere denbora eta garrantzia kentzeko joera izan dezakegu. Beraz, zeretik hasi eta esperientzia positiboak izaten saiatzea izango da gakoa. Esperientzia positiboak errepikatze-ko joera dugu.

Baina, nola lortu esperientzia positiboak? Bi orrialdeotan, ezin dugu guztia zehaztu, baina bai oinarritzko baldintza batzuek hitz egin. Hasteko, bost zentzumenei protagonismoa ematea komeni da, guztiei:

SEXESALDIA

Woody Allen-en esaldia: "Gizarte permissiboegian bizi gara. Pornografia ez da inoiz hain ausart erakutsi. Eta gainera, irudiak desenfokatuta daude!"

SEXIDEIA

Bat baino gehiago garenerako: Hotel bateko gelan gelditu, inori ezer esan gabe, mezutxoek bidez.

Bakarka ala konpainian: Maindireak aldatuz jolas egitea —adibidez, kolore beltzeko maindire edota distiratsuak erosituz—.

SEXKUBIDEA


Sexu gozamen eskubidea: autoerotismoa hartzen du bere baitan, ongizate fisikoa, psikologikoa, intelektual eta espiritualetan iturri baita.

entzumena, usaimena, dastamena, ukimena eta ikusmena. Eta hauek ematen dituzten aukerak ireki, probatu. Larruazalak, esate baterako, bi metro karratu ditu batez beste! Larruazala organo sexuala da: dastatu, ukitu, ikusi, usaindu... era askotara.

Bestalde, garrantzitsua da sexu harremanez hitz egitea. Bikote edo norbanako askorentzat ez da zilegi desioez hitz egitea, edo larrua jo ondoren balorazioak egitea: zer gustatuko litzaigukeen berriro egitea, zer aldatu nahi genukeen egitea, zer ez dugun batere atsegin...

Bestetik, denbora saldu eta erosi egiten dugu. Saldu, gehienetan lantokian, diruaren truke. Erosi ere egin dezakegu: beste norbaitek egin ditzakeen gauzak delegatuz: etxeko garbiketak, auto konponketak, haurrak zaintzea... Norberak baloratu du zein prezio jartzen dion bere denborari. Sinesgaitza eman dezake, baina hala da. Denok gure askatasuna kudeatzen dugu, eta aukeratu ditugun lehentasunek beste aukerak mugatzen dituzte. Gure esku dago erabakitzea (geure gaitasunen baitan) zenbat inbertitu nahi dugun gure bizitza sexuala aberasteko, bikotea izan ala ez.

Hortaz, nahi dugunari "bai" esan eta besteari "ez" esan beharko diogu. Azken aukera hau ez da hain erraza izaten, baina "ez" esaten ikasteko teknikak eta moduak badaude, baita liburuak ere.



10.000

zientzilari ari dira lanean LHC (Large Hadron Collider) proiektuan. Proiektuak inbertsoaren bilakaera aztertu nahi du, eta horretarako, Big Bang leherketa errepikatuko dute Frantzia eta Suitza arteko mugan, 100 metroko sakoneran eraikitako laboratorioran: bi protoi-sorta gurutzatuko dituzte, argiaren abiaduran, 27 km-ko zirkunferentziako tunel batean. Hawaiko ikerlari batek auzitegiara jo du proiektua geratzeko, oso arriskutsua delakoan. 3.900 milioi euro gastatu dituzte proiektuan. Udan izango da esperimentua.

%12

merketuko litzaiguke argindarraren faktura, etxeko aparatuetako standby pilotuak beti itzaliko bagenitu. Standby pilotu gorria energia xahutzeko sistema tontoena da, gailu gehienek argindarra xahutzen jarraitzen dutelako horrekin (eta aparatu batzuek, standby itzalita ere, energia xahutzen segitzen dute).

30.000

bat lagun desagertu dira Argentinan 1976ko martxoaren 24tik gaur egun arte, arrazoi sozial, politiko eta ideologikoengatik. Gobernu Kanpoko Erakundeek emandako datu beldurgarria da. AEDD (Asociación de Ex Detenidos Desaparecidos de Argentina) elkartearen arabera, desagertze horiek eragin zituztenen %95 aske dago.

**gaztezulo flash zure e-mailean
doan jaso nahi duzu?**

**Hamabostean behin
informazioa eskura**

Bidali e-maila eta zure izen-abizenak gaztezulo@gaztezulo.com helbidera

15/1999 lege organikoaren arabera, harpidedunak gaztezulo-ri emandako datuak Datuen Babeserako Agentzian inskribaturik dagoen fitxategi automatizatu batera igaroko dira, datuen kudeaketa hobea bermatzeko eta harpidedunak gaztezulo-ren jardura eta zerbitzu buruzko informazioa jaso dezan. Datu Ligatzaileak, nolizahizango eta sarbide, zuzenketak, ezestapen eta aurkaritza eskubidea, arauak ezartzen leuenari jarraituz, Katalina Eizlegi 36, behea, 20009 Donostia helbidea, ibota helbide elektronikoa honetan: harpidetza@gaztezulo.com

5 KIDE & 5. DISKOA =

XABI ALDAZ. 28 URTE. ETXARRI ARANATZ
JON RIVAS. 27 URTE. GASTEIZ



Desagertutako Kaos Etiliko taldeko kide izandako Fonta (baxua), Aguayo eta Aguayiko (gitarrak), batetik, eta Xabi (bateria) eta Johnyk (ahotsa), bestetik, osatzen dute Kaotiko boskote rockeroa. 8 urteko ibilbidea eta 5 disko dira jatorriz Aguraingoa den talde honen ondarea. Euren azken lanaren izenak oso ondo biltzen ditu taldearen izaera eta bilakaera, 'Adrenalina'.

t. ane pedruzo a. edorta sanz

Gainera, eskaini dituzten kontzertu sortak ederki asko adierazten du talde euskaldun honek bizitzen diharduen oparotasuna, eta dagoeneko hitzarturik dauzkaten deialdiak ere ez dira gutxi. Hurrenez hurren, perkusioa eta hitzen kapitainak diren Xabi eta Johnyk, Geu-ko irakurleekin partekatu nahi izan dute abiadura izugarri eta infinituaraino heltzeko asmoa duen itsasontzi honen ibilbidea...

KAOTIKO & 'ADRENALINA'

Kaos Etiliko izan zen Kaotikoren aitzindaria, lehengoaren aztarna nabaria al da?

Bai dudarik gabe. Kontuan hartu behar da Kaotikoko hiru kide Kaoseko kide ere izan zirela, beraz, beraiek Kaos bizitzen jarraitzen dute eta beti jotzen ditugu aitzindari dugun taldearen abestiak. Jendeak eskatzen dizkigu eta azken finean beraiek ere egindako abestiak dira, nahiz eta taldea jada ez existitu.

Zehazki, zuek zarete Kaosetik ez zatotzenak. Egoera hau zaila, deserosoa ala harro egoteko modukoa da?

X: Ni oso gustura hasi nintzen taldean, oso pozik. Lehen berbenetan jotzen nabilen eta ilusio handia egin zidan ni hautatu izanak. Hutsetik abiatu ginen, ondo atera zitekeen kontua edo ez, eta zorionez ondo atera zen.

J: Ni garai hartan Aguraindik nabilen, eta amets bat bezalakoa izan zen Kaotikoren sartzeta. Ardura handiarekin hasi nintzela aitortu beharra daukat, baina proiektu berri guztietan gertatzen den moduan, edozer atera zitekeen fusio hartatik.

Bost disko dira jada soinean daramatzazuenak, zer-nolako garapena ikusten diozue Kaotikori?

Gure lehen diskoa, 'Mundo Kaotiko' oso azkar sortu genuen. Izan ere, talde berria ginen eta ahalik eta lasterren kaleratu nahi izan genuen lehen lana, Kaosek utzitako giroa hoztu baino lehen. Orduan, bizkortasunaren ondorioz, sendotasun gutxiko emaitza lortu genuela esan daiteke. Denboraren poderioz, lokalean orduak eta orduak sartuz eta esperientzia lagun, hobetuz joan gara eta 'Adrenalina' diskoan heldutasuna lortu dugu. Azken lan honen izena oso ondo dator kio lortutako emaitzari, adrenalina baita osotasunean. Gustuko dugun diskoa da eta bertan aurki daitekeen musika trinkoa, indartsua eta oso alai da, dantzatzera gonbidatzen duen horietakoa. Astiro eta patxadaz egindakoak beti dira hobeak, denbora galdu gabe noski!

XABI: "KONTZERTU BAT EMAN BEHAR DUGUNEAN HORI DUGU BURUAN EGUN OSOAN ZEHAR, ETA MOMENTUA HELTZEN DOAN HEINEAN URDURITASUNA ERE HAZTEN DOA. HALERE, NERBIOAK EZ DIRA INOIZ GALDU BEHAR, JOTZEKO ILUSIOA GALDUKO GENUKEELAKO"

Gaur egun Euskal Herrian musikaz bakarrik bizitzea posiblea al da?

Gure egoera deskribatzeko biziraupena da erabili beharreko hitza, izan ere, musikak ez du etekin handirik ematen... Hain zuzen, Kaotikoren gako kontzertuetan dago, 50.000 diskotik gorako salmenta lortu behar baita horretaz bizi ahal izateko. Gu jende xumea gara, gehiegikerietan erortzen ez diren horietakoak. Euskal Herrian musikari lana ez da batere samurra. Disko baten grabaketa soila izugarri zaila da, pentsa musikaz bizitzea!

Musika komertzialaren bidea hautatuz gero ospetsu izatera heltzea errazagoa da, horren truke zuen arima salduko zenukete?

J: Musika komertzialaren formularik ba ote dago? Kontzeptu hau oso erlatiboa da.

X: Nire ustez, musika komertziala konpainia batek sortutako produktua da salmentak izanik jomuga. Guk barnetik ateratzen zai-guna jotzen dugu salmentez arduratu gabe. Dena den, komertziala hitzak konnotazio ezkorra darama zintzilik eta beti ez da horrela. Alejandro Sanz-en kasuan adibidez, norbait aipatzeagatik, askok komertziala dela esango lukete, bere lana gutxietsiz eta niretzat sekulako musikari ona da, nahiz eta egiten duena gogokoa ez izan.

Guk atsegin dugun musika egiten dugu, ez beste baten gustukoa dena.

Musikarientzat jarraitzaileen pisua oso nabarmena da, zuenak gazteak dira batez ere; jende helduagoarengana hurbiltzeko asmorik izan duzue inoiz?

Oro har esan beharra dago guk ez dugula publiko zehatz batentzako musika sortzen, hori mugatzea ia ezinezkoa delako.

Gure jarraitzaile gehienak gazteak dira bai, baita piratak ere. Interneten menpe bizi dira eta musika bertatik jaisten dute. Gu horren alde gaude, gure musika entzun dezatela nahi dugulako. Dirurik ezean, taldearengana hurbiltzeko moduak izatea ondo dago. Dena den, publikorik gaztetxoena Euskal Herrian dugu batez ere, kanpora irteten garenean helduago baita, baina hemen helduak ere gure musikaz gozatzen direla esan daiteke. Euskaldunok musika oso era berezian bizitzen dugu, kulturaren parte bat da. Kanpoko jendeak gehiago aprobetxatzen du ordu eta erdiko kontzertua, hemengo publiko behatzaileagoa da.

JOHNY: "KONTZERTUEN OSTEAN NORMALEAN EZ DUGU PARRANDA ASKORIK EGITEN, NAHIKO FORMALAK GARA. IZAN ERE, ESZENATOKIAN BIZITAKO SENTSATIO GUZTIAK BATERA ERORTZEN ZAIZKIGU GAINERA ETA BAJOIA ETORTZEN DA KONTZERTUAK BUKATZERAKOAN"

'Destino escrito' diskoan eta orain 'Adrenalina'-n ere, beste musikariren kolaborazioak izan dituzue, Evaristo eta Banda Bassotirenak esaterako. Hain dira garrantzitsuak kanpoko kolaborazioak? Prestigioa al dago jokoan?

Kolaborazioak dauzkan diskoa gauza ederra da. Musikaren munduan sekulako ospea duen jendea gure abestietan egotea harro egotekoa da, guk konposatutako lanaren partaide dira, opari bat da. Dena den, kolaborazioena betidanik modan egon den eta dagoen zerbait da. Gurekin abestu eta jotzen dutenak hain justu hurbiletik ezagutzen ditugu; musikak hori dauka, ezagun asko eta batzuetan lagun onak ere bai.



www.kaotiko.com

da, ondo sentitzekoa, baina ez dugu gure burua beste inor baino gehiagotzat edo hobegotzat hartzen!

X: Niri oharkabea igarotzea gustatzen zait. Niretzat ospearen xarma areto bat betetzean datza, zuk sortutako zerbait jendeari gustatzen zaiolako, zurekin gozatzen dutelako...

J: Nik ez dut larregi estimatzen taldearengatik ezaguna izatea, ez zara norbait zure lanagatik, baizik eta pertsona bezala zarenagatik... denok igualak gara, kaleko jendea...

Zer-nolakoa da ospearen xarma? Neskatan erraz egiten duzuela esan ohi da...

Hori da jarri egin diguten fama, baina gezurra da erabat! Denak ia erdi ezkondurik gaude! Ospeari dagokionez, umilak gara... Apaltasun puntua ez da inoiz galdu behar, ezin duzu sinetsi ez zaren ezer... Hori akats handia da. Guri lotsa ematen digu autografoak eskatzen dizkigutenean... Egoera polita

APALTASUN PUNTUA EZ DA INOIZ GALDU BEHAR, EZIN DUZU SINE-TSI EZ ZAREN EZER... HORI AKATS HANDIA DA

Abesti bat eta disko bat aukeratuko zenukete?

Zalantzarik gabe, Adrenalina diskoko Adrenalina abestia. Oso abesti osoa da,

Kontzertuak

08/05/02 Olearsolo festibala (Hondarribi) + ken 7, S.A., Barricada, Sorkun, Amparanoia...

08/05/17 Cassa de la selva (Girona)

08/05/23 Festival 11 Xapulina Rock (Barcelona) + Segismundo Toxicomano, Batikano Rojo eta La Troupe

08/05/30 Viana Rock 2008 (Viana)

08/05/31 AHT gelditu! (Donostia)

bizitasun izugarria dauka, mundua abesti honekin bat dator. Sabelean emandako ukabilkada bat da, esnatzeko adrenalina purua hasieratik azken akordeetara... Samindurik egon zaitezke eta abesti honekin tristurak ahaztu eta hegan egin dezakezu...■

berriak 5 urte

Eskualdez eskualdeko ekitaldiak

- *BERRIAk 5 urte. Bideoa*
- *Hitzaldia. Aurrera begirako erronkak*
- *Mokadua*

GASTEIZKO EKITALDIA

Maiatzak 15, osteguna, 20:00etan
Gasteizko Artium-en

Zatoz
gurekin ospatzera!

berria

luzatu bostekoa



proposamenak

cd

'kalamidadiak'

morau
gaztelupeko hotsak-08
www.hotsak.com



andoni tolosa, morauren azken lana. agotak taldearekin hasitako bidearen bigarren fruitua da 'kalamidadiak', baina lehen aldiz taldean pentsatuz sortu ditu kantuak. hortaz, songwriter ildoko baladak eta doinu akustikoak murriztu dira eta rock&rollaren arintasuna eta indarra bereganatu dute morauren kantuek, power-poparen freskotasuna eta lelo itsaskorretarako joerarekin bat eginez.

liburua

'axa mixa zilarra'

j. m. olaizola "txiliku"
marrazkiak : elena odrizola
www.elkarlanean.com



benetan gomendagarria da liburu berezi hau. bertan, igarkizunak, ipuinak, kantikak, hitz jokoak, aho korapiloak, jolasak, eta beste hainbat bitxikeria, ondo pasatzeko helburu, euskaraz jolas egiteko. asmakizunak asmatuta edota asmatu gabe ere, lasai, erantzuna bilatzeko aukera badago-eta.

zinema

'un poco de chocolate'

euskal herria-08
aitzol aramaio
www.unpocodechocolate.com



aitzol aramaioaren (ondarroa, 1971) lehen film luzea. 2002an espainiako literatura saria irabazi zuen unai elorriagaren sp-rako tranbia eleberrian oinarritutako pelikula da.

algortan, gorrizen eta bilbo inguruan filmatu duten pelikulak lucas izeneko 80 urteko agurearen (hector alterio) istorioa kontatzen du. lucasek oroitzapenak eta errealitatea nahasten ditu eta shisha pangmaren (sp) gailurrera igotzearekin egiten du amets. halako batean, marcos (daniel brühl) ezagutuko du. julieta serrano, ramon barea, marian aguilera, barbara goenaga, mikel albisu eta gorka ottoa dira filmeko gainerako aktoreak. Bizitza, maitasuna, argia...

literatura dosi txikitan

IPUINEN EGUNA

t. mikel ayerbe



Apirilaren 23an liburuaren eguna ospatzen dela eta, literaturaren inguruko hainbat ekimen antolatzen dira inguru horretan. Eta beti bezala, aukeratu egin behar. Egun berean izan zirelako Angel Erroren *Poematrix (Relou-ded)* hitzaldia eta Iban Zalduaren gidaritzapean Eider Rodriguezek eta Uxue Apaolazak parte hartu zuten mahai-ingurua. Nahita ere, ezin denera iritsi...

Haragiaren gezurrak, gezurraren haragia izenburudun mahai-ingurua aukeratu nuen nik, Apaolaza eta Rodriguez bezalako bi idazle aurrez aurre ikusteko aukera gutxitan izaten delako. Eta nola ez, idatzi dituzten liburuak literatura onaren adierazle nabarmenak direlako: Rodriguezen 'Haragia' eta Apaolazaren 'Umeez gezurra esaten dutenetik', zein baino zein. Ipuin liburuak biak. Irakurri beharrekoak biak (irakurtzea behar bihurtu zaion edonorentzat behintzat).

Eta irakurtzeaz hitz egin zen. Irakurtzea ezkerretik eskuinera eta goitik behera egiten den kontua baino zerbait gehiago dela esan zuen Rodriguezek. Irakurketaren lilura, arkatzik gabe irakurtzearen nostalgia. Idazle izanik ere, zoriona irakurritz lortzen duela aitortu zuen ondoren. Ezer baino lehen, idazleak irakurle izan behar duelako.

Eta ipuingintzaz hitz egin zen. Errealitatearen gezurra biluzteko ipuinek duten gaitasunaz. Ipuinaren gezurrak eta haragiaz. Haragiaren eta gezurraren gordintasunaz. Apaolazak bere obsesioak irakurleei txertatu nahia aipatu zuen, hepatitis izan eta bere pazienteak hepatitisaz kutsatzen zituen medikuaren kasua gogora ekarritz. Besteak beste, zenbait ipuin irakurtzea inozentzia galtzeko beste modu bat delako.

Eta hitz egin zen liburuez, euskarazko best-sellerren inguruan, merkatuaz, belaunaldiez... eta mahai-ingurua bukatuta ere hitz egiten jarritu genuen. Eta horrelakoetan sarritan gertatzen den bezala, onena gero etorri zen. Baina hori, ez dut hemen kontatuko ■

SAIOA:

“Jendeak nire musikarekin konektatzeak gizartearen parte naizela gogorazten dit”

Logelako leihoak ireki ditu Saioak, haren ametsa errealitate bihurtuz. Gitarra du lagun bere ahotsak, eta harremana etxean indartu dute urtetan. Soinu korronteak ere heldu zaizkio Saioari, AEBetatik gehienak. Neil Young edo Bob Dylan klasikoak dakartzate gogora Saioak kaleratu lehen diskoaren abestiek. ‘Particuland land’ mini-albuma sei abestik osatzen dute. Legorretarrak euskaraz eta ingelesez abesten du, Moonpalace Records zigilu independentearekin argitaraturiko estreinako lanean.

t. naroa cuesta

Saioaren lehenengo diskoak ustekabeen harrapatu zuen bat baino gehiago. Etxetik hurbil izan dugu urtetan, baina leihoak ireki barik ezin melodiak entzun. “Lagun artean geratu dira aurretik egindako beste bi make-tak”, diosku Saioak. ‘Particular land’-en aberastasuna erakutsi ostean, bigarren diskoa ‘Matrioska heart’ hilabete honetan kaleratuko du. Panpina errusiarren antzera sorpresak aurkituko ditugu barnean, ziur.

Euskal Herrian plazarik plaza ibili da kontzertuak eskaintzen aurten. Musikari askorekin kontaktua izan du Saioak. Hala ere, gitarra, harmonika eta ahotsaren indarrez soilik baliaturik eszenatokiak betetzeko ahalmena du neska gazte honek. “Oso poetikoa iruditzen zait, adibidez, kotxea hartu eta ni bakarrik gitarrarekin herri batera joan eta kontzertu bat ematea... Kantautore sentazioa izan dut, eta niretzat oso sentazio iradokitzailea da abesti berriak sortzerako orduan”, azaltzen du Saioak.

Gitarra eta ahotsaren laguntzaz egiten duen prozesu katartiko gisa definitzen du Saioak bere musika. Lehen diskoan folka, popa eta



rocka bildu ditu, ahotsaren gordintasuna nagusi delarik. Bigarren proiektu honetan, aldiz, beste bi musikarik parte hartu dute. Sixty Sexers taldeko Joseba Baleztena (gitarra) eta Gorka Hermosaren (akordeoia) ukituak antzemango dira diskoaren bihotzean.

‘Particular land’ zure lehen lanak oso kritika onak jaso ditu. Gaztea izanik ere heldutasun nabarmena islatzen da lan honetan. Noiz hasi zinen musikaren mundu honetan?

Gitarra jotzen, duela hamar bat urte hasi nintzen..., hasi eta utzi egiten nuen, gogoren arabera. Gero, bat-batean, abesti txikiak “jaiotzen” hasi zitzaizkidan barnetik. Grabazio estudioetik hiru bider pasatu naiz, hirugarren maketatik ‘Particular land’ ateratzeko aukera suertatu zitzaidalarik.

Ez al du lotsarik ematen zure “mundu partikularra” lau haizeetara zabaltzeak?

Bai, bertigo emozionala ematen du jendurrean nire beldur, lotsa eta oro har, sentimendu pertsonalak abesteak, baina aldi berean, kantatzen ditudan bitartean berauekiko nolabaiteko kontrol sentazioa nabaritzen dut. Gainera, jendeak nolabait musikarekin edota hitzekin konektatzen duela ikusten dut eta horrek gizartearen parte naizela gogorazten dit.

Ateratako ehun kopiak amaitu eta bigarren edizio txikia kaleratu du Moon Palace Records zigiluak. Espero zenuen horrelako harrera?



Asko miresten ditudan musikariei gustatu zaie egin dudana eta horrek poza handia eman dit, are gehiago, beraiekin jotzeko aukera izan dut.

Desioak, nahiak, zalantzak, indarrak..., sartzen al dira denak mini-album batean? Non gordetzen dira disko batean sartzen ez diren abestiak?

Desioaz hitz egiten duen abesti bakarra egitea ezinezkoa da, alegia, desira, sentimendu guztien antzera, mundu zabala da eta ikuspegi eta hitz desberdinekin hitz egin daiteke

berari buruz. Beti geratzen dira hitzak esateke abesti baten barnean ere..., nire kasuan behintzat.

Ingelesez eta euskaraz kantatzen duzu. Zerk eragiten du hizkuntza bat edo bestea aukeratzea letra edo musika jakin baterako?

Nik egiten dudana musikak amerikar folk musikarekin badu nolabaiteko lotura, eta ingelesa primeran egokitzen da musika mota horretara. Momentuz ingelesa errazago, egokiago sartzen dut melodian.

Euskarak duen abantaila (Euskal Herrian) zera da, esaten dudana jendeak bat-batean ulertzen duela eta hor konexio emozionala gertatzen da jendearekin. Asko gustatzen zaidan musikari batek "Feedback" emozionalaz hitz egin zidan eta arrazoi osoa zuen: kantatzen dudana edozeren efektua pertsona baten espresioan nabaritzeak esan dudana kontzienteago egiten nau. Magikoa dela ere esango nuke, gizartetasunaren esperientziara hurbiltzen den zerbait bezala definituko nuke nik.

Zure bigarren diskoa maiatzean entzuteko aukera izango dugu. Honetan ere, aho zabalik utziko al duzu bat baino gehiago?

Disko berri hau desberdina da lehenengoa-rekin alderatzen badugu. Aurrekoan nire ahotsa, gitarra eta harmonika zeuden; orain, berriz, Sixty Sexers taldeko Joseba Baleztena gitarrajole eta Gorka Hermosa akordeoijole bikainek beraien ukitu berezia eman diete abesti askori eta oso gustura nago emaitzarekin.

Gainera, diskoaren diseinua ere izugarri polita geratu da; nire diskoetxeko buru Juanra Moonpalacek, beti bezala eskuz, diseinatu du kaxa eta ni aho zabalik gelditu naiz, oso originala eta bitxia baita.

Zerk "itsutuko" luke Saioa?

Nik asko amesten nuen nire logelatik "mundura" ateratzea nire gitarra eta ahotsarekin... Nolabait amets hori "argia" zen eta nire logela "zuloa". Amets hori egia bihurtzen denean konturatzen zara bizitza aldatzen dela baina mirakulurik ez dela gertatzen, alegia, bizitzan amets gorenik ez dudala... Ez dago toperik... Eta nik etengabe topea bilatzen dut, amets bat lortu orduko handiago baten bila nabil... Horregatik diot argiak itsutu egiten nauela, ez baitit uzten momentua disfrutatzen luzaroan ■

'MATRIOSKA HEART', disko berria

- Aurkezpena: Maiatzaren 20an, Donostiako Okendo Kultur Aretoan
- Kontzertuak:
 - **Maiatzak 18:** Madrilen izango den Ladyfest jaialdian
 - **Ekainak 28:** Legorretan, Sustraiez Blai jaialdian
 - **Abuztuak 22, 23, eta 24:** Zaragozako Expoan



Bidaiak denbora eta espazio zehatz batean hasten dira.

Amaitu... nork daki. Bidaia mota ugari daude. Ametsak bidaia izan daitezke; bidaiak amets. Abestiek bidaiak deskriba ditzakete eta ametsei doinua gehituz abestiak sortzeko aukera ere badago. Bidaiak ametsak errealitate bihurtzeko antidotorik onenak izan ohi dira. 'Lagun eroa'-ren eskutik bidaiatzeko edo ametsetan murgiltzeko aukera eskaintzen dizuegu honakoan.



'LAGUN EROA'

IGOR ARZUAGA, MARA:

“Artea bake prozesu pertsonalerako mediorik zintzoena dut”

t. naroa cuesta

a. edorta sanz

Igor Arzuagak bidaia edo amets berri bati ekin dio Mara proiektuarekin. Hamar abestik osatzen dute 'Lagun eroa' diskoa, Mara-ren lehen lana. Piano eta ahots soilez interpreta-

Aurretik grabatutako 'Argi izpi bat' eta 'Smog' diskoekin zerikusi gutxi du laudiar honen hirugarren diskoa, 'Lagun eroa'-k. Denboraren mugetatik kanpo egindako bidaia baten modura, Mara-k barneko ikarak eta grinak aurkezten ditu. Desitxuratuak zenbaite-tan; errealaren eta ustezkoaren arteko zubi



turiko letra gordin eta biluziak biltzen dira bertan. Politburo Recording Fiasco-k editatutako diskoa “estilo ariketa” moduan definitzen du Arzuagak. Gasteizko El Cantón de la Soledad estudioan grabatutako lan honek antzinako musika dakar gogora. Gramofonoen eta zaharkitutako biniloen aztarnak azaleratzen dira. Eromena den korapiloa adierazi nahian zirriborro bat agertzen da CDaren azalean. Bada, Josune Mirandaren diseinuak lortu du Mararen esentzia islatzea.

horretan dantzan ari diren letren eta doinuen antzera. Zintzotasuna du ezaugarri 'Lagun eroa'-k. Izaera, gogo, printzipio, sentipen eta publikoarekin legalki jokatzeko Marak, itxurakeria bidean ahaztu edo galdu izan balu bezala.

Sorkuntzak ahalmen terapeutikoa dauka, horrenbestez, ezinbestekoa du Igor Arzuagak. Konposizio eta letrez gain, marrazkiek eskaintzen duten askatasuna gogoko du gazte honek. Proiektu anitz ditu buruan

Arzuagak: "Mara gisa beste disko bat ateratzea da helburua, eta Igor Arzuaga moduan beste bat. Gero, Hasier Oleaga eta Bingen Mendizabalekin batera 'Niño nadie' izeneko proiektua legoke, baina oraingoz uda lasaitasunez hartu nahi dut".

"Bidaiek norberaren izaera irekitzen dute", diosku Arguzak. New York, Chicago, Paris, Bartzelona... ezagutu ditu eta bertan musikaren esperientzia garatu ere. Nolanahi ere, Lekeition bertan du babesleku edo ihesleku espiritualak. Inspirazioa, edonon.

Zer dauka berezi Mara proiektuak?

Planteamendua da berezia. Musika egiteko beste modu bat da, guztiz atera naiz orain arte egindako estilotik. Goititzen bat erabili dut horretarako. Logistika aldetik ere desberdintzen da. Uste dut Euskal Herrian ere badagoela makroegitura komertzial bat euskararen erabileraz aprobetxatzen dena eta gizartearekin inolako konpromisorik ez duena. Guk zazpi eurotan saltzen dugu diskoa. Eskaintzen denaren eta prezioaren arteko erlazioa orekatua dela uste dugu. Jendeak eskuragarri eduki ditzan artista desberdinen obrak eta ez dezala prezioaren arabera epaitu zein den kalitate handiagoa duena.


Bidaiek eta ametsek garrantzia handia dute zure letretan..., egindako bidaiei buruz ari zara edo amestutakoak dituzu gogoan?

Ametsak ere badira bidaiatzeko modu bat. Nire burua kokatzen dut egoera desberdin batzuetan, fikziozkoak izan daitezke edo esperientzia soilak. Horrela, ametsak bidaia izatearen esperientzia horretatik saiatzeko mundu imaginario bat islatzen.

New Yorken egona naiz bi hilabetetan zehar trikitixa jotzen metroan, horrelako abentura kafkiano batean sartuta. Esperientzia moduan saiatzeko naiz abestietan islatzen.

Kontzertu ugari eman dituzu azkenaldi honetan 'Lagun eroa' diskoarekin... Nola ulertzen dituzu zuzenekoak?

Zirkuitu alternatibo batean gaude astebururo kontzertuak ematen. Batzuentzat zentzu gutxiesgarria dauka horrek, baina ez dut uste gaztetxeetan jotzeak marginalizazio puntua daukanik. Nire disko berri hau ez da



instituzionalizatu den produktua; legalagoa da gaztetxeetatik eta istorio desberdinak planteatzen dituzten lekuetatik ibiltzea. Gainera tipo bat piano batekin gaztetxe batean ikustea ere bada zerbait desberdina.

Nola bizi duzu musika eta sorkuntza?

Zazpi urte nituenean hasi nintzen musika ikasten, ama musika irakasle dut. Horretan hasi eta hezi naiz: pianoan eta gitarran. Terapia moduan hartzen dut sorkuntza kreativea, etengabe behar dut horretan ekin, nire buruak planteatzen dizkidan bulkadetatik ihes egin behar izaten dudalako. Horrela artea bake prozesu pertsonalerako mediorik zintzoena da. Ahalmen terapeutikoa dena saiatzeko naiz komertzializatzen, ikusten dudanean komunikazioarekin harreman estua duela.

Eta kontzertuak... nola definitu?

Zuzenekoak dira komunikazioa. Aurrean duzuna manipulatzeko aukera berezkoa dago, aukera horrek elikatzen du bai ikusleria, baita musikaria bera ere. Publikoa beti sartu behar da poltsikoan. Horrelakoetan diskoan aurkezten dudan produktuaren sublimazio artistikoa lortzen dudala uste dut.

Zer-nolako publikoari dago zuzenduta 'Lagun eroa'?

Musikarietzako musika dela uste dut nik. Disko hau behin baino gehiagotan entzuteko dela esango nuke. Nik betidanik oso musika gutxi entzun izan dut, baina entzundako hori askotan. Erljio bat banu musika klasikoa izango litzateke. ■

Gasteizko AHT Gelditu! Elkarlanak Abiadura Handiko Trenak gure udalerrian eragingo dituen kalteen inguruko txostena prestatu berri du, makro-egitasmoko horren inguruko informazioa gasteiztarren eta arabarren artean zabaltzeko eta hausnarketa bultzatze aldera. Txosten hori kaleratzearekin batera, tokian tokiko dinamikara jauzi egin du AHT Gelditu Elkarlanak, eta Gasteizen ekimen sorta prestatu du AHTren kontra. Besteak beste, manifestazioa antolatu dute hilaren 17rako Gasteizen, Gelditour ekimenaren barruan. Iban Martinez de Albeniz Elkarlaneko kideak horren guztiaren berri eman dio GEUri.



IBAN MARTINEZ DE ALBENIZ

“Gasteizen jende askok ez daki oraindik zer den Abiadura Handiko Trena”

t. edurne begiristain

a. edorta sanz & artxibo

Orain arte Euskal Herri mailan aritu bazarete ere, Abiadura Handiko Trenak Gasteizen eragingo dituen inpaktuen inguruan informazio kanpaina abiatu duzue.

AHT Gelditu! Elkarlanak maiatzaren 4tik 31ra Gelditour dinamika ibiltaria abiatuko du, Abiadura Handiko Trenak Euskal Herrian zehar eragingo dituen kalteen inguruko informazioa emateko. Eta horrekin batera, gure asmoa da tokian tokiko dinamika ere indartzea, Gelditour ekimena Gasteiztik maiatzaren 17an pasako dela aprobeztatuko dugu egun horretan manifestazio bat antolatzeko. Halaber, AHTk Gasteizen modu zehatzean eragingo dituen kalteen inguruan txostena ere prestatu dugu.

AHTri buruzko informazio gabezia nabaria da herritarren artean. Alderdi horretatik lan asko dago egiteke oraindik gasteiztarren artean?

Gure filosofia da herritarren mailara jaitea, ikusten dugulako lan hori egitea oso garrantzitsua dela, Gasteizen jende askok ez baitaki zer den AHTa. Horregatik hasi gara oinarritzko maila batekin informazioa ematen. Kontuan hartu behar da Gasteizen ez dugula ikusiko Abiadura Handiko Trena, Zurbaoko pabilioiaren inguruan lurrazpian sartuko delako. Informazio hori zabaltzea da gure asmoa: maketa bat

egin dugu, hitzaldiak antolatu ditugu auzo elkarteekin, Gasteizko 80.000 etxebizitzatan diptiko bat banatuko dugu...

Abiadura Handiko Trenak Gasteizko udalerrian eragingo lituzkeen kalteen inguruan landu duzuen txostena arloka banatu duzue: Ingurumena, hiri eredia eta inposaketaren gaiak jorratu dituzue. Zeintzuk dira nagusiki AHTk Gasteizko udalerrian ingurumenari eragingo dizkion kalteak?

Hirian sartu aurretik, azpiegitura honen gure udalerriko zati luze bat goratuta igaroko duela kontuan izanik, Luku eta Gasteiz bitarteko ibilbidea altxaturiko plataforma baten gainean eragingo da, 10-17 metro bitarteko mendoitz baten gainean. Horrekin batera, Zadorra eta Santa Engrazia ibaien gainetik hainbat bidezubi eraiki nahi dituzte. Kontuan hartu behar da EIL (Elkarteko Interes Lekua) gisa izendatuta daudela ibai horiek Europa mailan, beraien landare-kalitatea eta aniztasunagatik. Salburuako eremu hezeetan eragingo diren kalteak ere ikustekoak izango dira, lanen ondoriozko lur mugimendu erraldoi horrek gainazaleko ur horietan zuzenean eragin baitezake.

Kutsadura akustikoa ere nabarmena izango da, ezta?

Bai, sarritan esan dugu AHTa lurrian dabilen hegazkina dela. Hartzen duen abiadaren ondorioz (250 km/orduko) egiten duen zarata jasangaitza da. Hala, Durana, Miñao Nagusi, Erretana eta Gamarra Txikitik 100-200 metrora pasatuko da; ondorioz, herri horietako biztanleek



jasan beharko duten zarata izugarria izango da, (MOE) Mundu Osasun Erakundeak gomendaturiko mugak sobera gaindituko direlarik.

AHTz ari garenean, gizarte eredu baten inguruan ere ari gara. Nola aldatuko du egitasmo horrek Gasteizko hiri eredia?

AHTk ez du benetan mugikortasun arazoa konponduko. AHTk hirigune handiak soilik lotuko ditu, herri ertainak baztertuta utziz. Arabako biztanleriaren gehiengo bere hiriburuan dago pilatuta gaur, eta argi dago AHTk herri txikiak hustuko dituen deslokalizazio prozesu bat jarriko duela martxan ez oso luzera. Eusko Jaurlaritzak argitaraturiko mugikortasun-datuen arabera, Euskal Y-ak EAEn egiten diren mugimendu motorizatuen %0,15 baino ez du ordezkaturiko. Izan ere, eskualde artekoak dira mugimendu motorizatu gehienak, eta Gasteiz horren adibide argia dugu.

Gasteizen egin nahi den trenbidearen lurperatzea eta AHTa elkarki lotuta daudela salatu duzue txostenean.


Ez da kasualitatea gai honi beste hainbat nahasten aritzea, oraingo trenbideaz eta Arriagako geltoki intermodalaz baliatuz Abiadura Handiko Trenari zilegitasuna emateko. Trena lurperatzeko dagoen asmoa burutzeak gaur gure hiriarren hegoaldean dauden trenbideak desagertzea lekarke; Udalaren asmoen arabera, etorkizunean Abiadura Handiko linearekiko paralelo lihoazke Gasteiz iparraldean. Hala ere, merkantziak garraiatzeko ohiko trena ez lukete lurperatuko, eta hiriarren iparraldeko N-1 errepidearen kanpotik egingo luke joan-etorria.

Bestalde, AHTren egitasmoan hasieratik informazio falta handia eta gizarte eztabaida eza egon da erakundeen aldetik.

Inolako ezbairik gabe, proiektu honen garapena eta burutzea definitzen dituen hitza inposaketa da. Izan ere, 2007ko martxoan burututako iritzi ikerketa batek argi uzten du ez dela inolako informaziorik eman. Abiadura Handiko Trena pasako den herrietako biztanleen herenak baino gehiagok ez zekien AHTa eraikitzearen asmorik zegoenik, eta are gutxiago bere udalerritik pasako zenik. Era honetan, biztanle gehienek azpiegitura honen inguruan gaizki informatuta daudela onartzen dute.

Obrak hasiak dira jada. Abiadura Handiko Trena gelditzeko denbora badago oraindik?

Bai. Argi dago erronka ikaragarria dela, ez bakarrik Euskal Herriko eta Espainiako egitasmo estrategikoa delako, Euskal Y-a Europa mailako egitasmo estrategikoen artean dagoelako baizik. Jabetuta gaude ez dela erraza izango gelditzea, horretarako indar guztiak norabide berean jarri behar direlako. Borroka molde desberdinak uztartu beharko ditugu; sentsibilizazioa, mobilizazioa, desobediencia eta arlo juridikoa norabide berean jarri behar dira ■



PARADISU GALDU BAT MUNDUKO AZKEN BAZTERREAN

Ez dakit zergatik baina txikitatik Pazko Uhartera joatearekin amets egiten nuen. 'Rapa Nui' filmean agertu orduko, nik jakin banekien non zegoen irla bakarti hori: Polinesiak osatzen duen triangeluaren mutur batean, Txile eta Zeelanda Berriaren artean, Pazifikoko galdurik, munduko azken bazterrean. Banekien holandarrek uharte honekin topo egin zutela kasualitatez, 1722ko apirilaren 5ean, Pazko Igandean. Bere biztanleak, aurreko zibilizazio baten hondakinez inguratuta, gudan zeuden klan batzuk ziren. Gero, Europatik ekarritako gaixotasunek eta esplotazioak kultura mileniar baten azken zaindaria akatu egin zituzten. Ordutik, Ozeania osoko antzinako kulturarik garrantzitsuenak, 'Moai' harri-iruditzarrak egiteagatik ezaguna, misterio asko ezkutatu du. Betidanik, istorio horiek erakartzen ninduten eta hantxe egotearekin amets egiten nuen. Nire ametsa betetzeko aukera inoiz suertatuko zitzaidala uste nuen.

t. iñigo ortiz de barron

Urtarril bateko egun batean, uda australean murgilduta, amets hori oso hurbil ikusi nuen. Valparaiso nengoen, Santiago de Chile-tik gertu, kafe zahar bateko terraza batean eserita, Victor Jararen abestien eta tango musikaren artean nahaste borrate bat entzuten. Hor nengoen ni, "El viejo Valpo"-ko portua den anfiteatro naturalean, auzoak eta kaiak batzen dituzten igogailu zaharren portu horretan. Behean, itsasontzi zaharrak, eta eszenatokian, Pazifikoa. Urdin argia, distiratsua, neurrigabea. Hodeiertzerantz begiratzeko ari nintzela, pentsamendu bat buruan: zergatik ez haratago joatea? Zergatik ez amets bat bete?

Ilunabarrean, kafe berdineran bueltatu nintzen, baina ordurako baneukan Santiagotik Pazko Uharterako hegazkin txartela. Orduan, chill-out musika entzuten zen zerbait berezia zeukan toki hartan. Akordeoi soinu urruti bat entzun zitekeen karriketan. Kale malenkonia-

tsuak, basatiak, marinel zaharrenak pasa ziren garaiaren lekukoak, eta noski, debekatuak ni bezalako "gringo" batentzat.

Kontinentea atzean utzita, LAN Chile-ren hegazkinean Txile eta bere "territorio especial" bereizten dituen itsaso amaiezina zeharkatzeko zazpi ordu eman nituen. Hegazkinean Rapa Nui-ko mapa bat ireki nuen, altxor uhartearena iruditu zitzaidana: triangulu itxura, bere izkina bakoitzean sumendi itzali bat, erdi-erdian baso bat, hondar zurizko hondartzak iparraldean, zibilizazio galdu baten hondakinak hegoaldean, amildegi zirrargarriak, eta beste aldean herrixka bakarra: Hanga Roa.

Lurreratu ginen munduko lekuri bazterretakoan, hiru mila kilometro itsaso norabide guztietan jendea duen beste leku bat aurkitzeko. Mata Veri aireportuaren terminaletik, (txabola horretatik, hobeto esanda) irten eta bazaude herrixkan. Hamar lagun zure bila, beren ostatua, ibilgailua, edo zernahi eskaintzeko eta lorezko lepokoa jartzen dizuten

bitartean "Aloha lorana" esaten dizute. Milaka aldiz entzungo eta erabiliko duzu agur hori zure egonaldian. Rapa nuiarrak, edo pazkoarrak, jende jatorra eta xaloa da, eta horregatik, zaila da aukeratzea non hartu ostatua. Azkenean uharteko kanping bakarrera joan nintzen, itsasertzean zegoen horretara. Eta benetan, aukera egokia izan zen. Merezki duelako ozeanoaren erritmoa entzunez loak hartzea eta egunsenti tropikalaren erdian esnatzea, batzuetan kanpadenda soberan dago eta.

Hanga Roa esploratu nuen lehenengo egunean. Kale nagusia hasten da tenplu polinesiar baten modura apainduriko elizan, eta kai txiki batean amaitu. Kalean barrena udal-etxea, azoka, banku pare bat, suhiltzaileak eta taberna batzuk daude. Ederra, argia, eta oso garbia da Hanga Roa, zuhaitz eta lore exotikoak beterik, lore-baratze baten modura. Ez dago hotel edo eraikin handirik, soilik palmondo hostodun teilatuak dauzkaten etxe



[*Uhartearen ohiko izena Rapa Nui da, Tahitiko antzinako biztanleen hizkuntzan uharte handia esan nahi duena. Uhartearen benetako izenak 'Te pito o te henua' ('Munduko zilborra') edo 'Mata ki te rangi' ('Zerurantz begiratzen duten begiak') dira. Gero Rapa Nui, uharteari deitzeko ez ezik, bertoko tribuari eta hizkuntzari ere deitzeko ere erabili zen.]



txikiak, zurgin rapa nuiarrek apaindutako zutabe, ate eta leihoekin. Lagunak egin nituen biran; lehenengo kañak, istorioak eta planak uharte osoan zehar ibiltzeko.

Triangelu itxura izanik, hiru aldeak 16, 18 eta 24 kilometrokoak dira. Bere perimetroa txirringaz inguratzean uhartearen edertasunaz jabe zaitezke. Uharte osoa Parke Nazionala da. Gizateriaren Ondarea hain zuzen ere. Itsasertzearen marran hondamen guztiak aurki daitezke, Orongo herri arkeologikoa, kasu. Rano Kau sumendiaren maldan dago, harriz osaturiko hiria dugu. Hor, Tangata Manu (gizon-txori) txapelketa espartarra egiten omen zen leinuen artean gorengo nagusi bat izendatzeko asmoz, Ariki Mau-a. Baina beste sorpresa dauka Orongok, txiki-txiki sentitzeko, izugarritzako krater bat zabaltzen baita bere tontorrean; bere urmaeleen zerua islatzen da.

Ibilbidean, arroka handi askotan rongo rongoz idatzitako petroglifoak ikus daitezke. Gaur egun, Polinesiako hieroglifo hauek misterio bat izaten jarraitzen dute. Uhartearen harrizko zaindari erraldoiak bezala: Moaiak. Paisaian bat-batean agertzen dira, batzuk *ahu* (aldare) baten eran, beste batzuk lurtean erorita. Ospakizuna, bakea, misterioa... igortzen dute. Moaiak beti ozeano amaigabera begira daude, edonor ere lelotuta gera daiteke haiei begira, eta bitartean zaldiek zuri begiratzen dizute. Zaila denez beste izakirik aurkitzea uhartearen zelai berdeetan zehar, Rapa Nui ez da turismo masiborik existitzen. Uhartearen erdi-erdian, Rano Raraku mendi sakratua, moaien harrobia. Bere maldetatik 400 eskultura baino gehiago daude eraikitze fase ezberdinetan, sumendia-horma bertikaletan sartuta.

Ozeanoren erdian egonda, eguraldia tupus-tean aldatzen da, eta haizeak eta olatuek erasotzen dute. Ekaitza bat berehala gertatzen da, eta tximistek eta zeru grisak mendi honi antz magikoagoa ematen diote. Ehunka kobazulori esker, euritik babestu zaitezke. Baina kontuz, espiritu zaharren etxea izaki, baimena eskatu beharra dago haien erraietan sartzeko. Tropikoan, berehala barealdia heltzen da. Anakena eta Obabe hondartzetako ur gardenetan bainu bat hartu, palmondoen azpian etzan eta bakardadean, ur berdeak harea nola laztantzen duen ikus dezakezu. Presarik gabeko toki horretan, izan liteke beste plan hobetik? Bai noski, etxola txiki batean sartu eta gaua pasatu hamaka baten gainean, benetako paradisu horretan.

Urpekaritza egiteko leku ezin hobea da Pazko Uharte: hondale gardenak koral eta arrain koloretsuz beterik. Surf ere egin daiteke, baina kontuz ibili behar duzu. Kanpai-hotsa entzutean, ez da hamaiketako mezatarara joateko ordua, barrakuda-sarda baizik. Zorionez, beti dago zure ondoan bertako bat zuri laguntzeko... Barrakudak eta marrazoak ez dira benetan erasotzaileak, gizakijaleak, baina surfariak dotokekin nahasten omen dituzte eta hobe Euskal Herrira souvenirrik ez eramatea, hots, haginkada bat hanketan edo besoetan...

Gaua heltzean zerua izarrez estaltzen da. Ez dago zeru-kupulako argitasunaren kontra lehiazterik. Gaua zilarrezkoa da Hego Pazifikoan. Danborrak entzuten hasten dira, musika uztartuz doa olatuen soinuarekin. Eta espektakulua, zoragarria izaten da. Horrela da gauero. Zibilizaziotik urrun, oso urrun.

Jai batean, edozein hondartzatan, sutondoan, berehala istorioak, edariak, gauzak, parte-



katzen dira. Mikel Laboa, Itoiz, eta abesti irlandarrak nahastuz zihoazen Manu Chao, Silvio, Moustaki, eta milaka (barkatu, baina ezin ditut izenak gogoratu) talde polinesiarren erritmoekin. Eta guretzat paradisu, zalantzarik gabe, bihurtzen da amalurraren zatitxo hori.

Baina, bertoko gazteentzat, ez da hain ederra beren isolamendua. Ez da erraza hain leku txiki eta urrutiko batean bizitzea. Uharteko gazteentzat, turismo mundutik at ez dago aukerarik zerbait desberdina egiteko. Gutxi batzuk baino ez dira joango beste leku batzuetako unibertsitatera. Bestela, etorkizuna zalantzakoa da uhartearen babesetik kanpo. Munduko zilborreko biztanleak denengandik aparte sentitzen dira, urrezko gartzela bailitzan. Bertan bizitzera kondenaturik, ala bedeinkaturik. Baina noski, rapa nuiarrek izateaz harro beti.

Erloju orratzik gabeko uhartean, astebetetz, bizitzak eroso ematen du. Pena handiz agur esan nion hain leku bereziari. Rapa Nui atzean utzi nuen, Andeatatik bidaia luze bat zegoen nire zain. Baina hori beste istorio bat da... ■

ISAAC PUENTE AMEZTOI: ASKATASUNA MAITE ZUEN MEDIKU MAEZTUARRA

t. kike fdz. de pinedo

1936ko abuztuaren 31n, gaueko hamabiak jo eta gero Bake kaleko presondegitik atera eta kamioi batean sartu zuten faxistek. Gero Posta eta Prado kalea zeharkatuta Mirandarako bidea hartu eta Pancorboko zoko anonimo batean tiroz akabatu zuten, edo Pangua inguruan apika. Ez zen bakarra izan, ordea, 300 arabar inguru erail zituzten krudel bezain koldar. Ez ziren gerra ekintzak izan, mendeku eta gorroto egarrizkoak baizik. Heriotzak, ordea, ez zuen bere oroitzapena ezabatzea lortu. Iaz Francisco Fdz. de Mendiolak idatzitako 'Isaac Puente. El médico anarquista' liburuak pertsonaia ezagutzeko aukera eman digu. Eta, zinez, aho zabalik utzi nau. Liburu lagun, laburpen hau atera zait:

Bere bizitzaz

Bizkaiko Las Carreras herrian jaiota 1911n familia guztia Gasteiza bertaratu zen. Hain zuzen, gaur egun Isaacen iloba batek San Frantzisko aldapan duen Puente farmazia ireki zuen bere aitak. Hemen batxilergoa egin eta gero medikuntza ikasi zuen. Laster, 1919an Maeztuko mediku bihurtu zen. Gizatasunak, elkartasunak eta eskuzabaltasunak bere lana eta bizitza gidatu zituzten. Medikua ona, eta maitatua izan omen zen. Gaixo behartsuei dirua kobratu ez ezik, txanpon batzuk uzten omen zizkien laguntzarren. Neguan eskiez baliatzen zen behar zen herrira joateko. Natura maite zuen, eta igande askotan bere emazte eta bi alabekin bainatzera joan ohi zen berak sortutako presa batera (gero Zumalde igerilekua izango zena). Barazkijale eta naturista izan zen bizitzan zein sendabideetan. Pedagogia askatzailean sinetsi zuen, eta alabak 10-11 urte bete arte ez ziren eskolara joan, libreak eta osasuntsu haziak nahi omen zituen, lotura bakoak.

Alfredo Donnay poeta eta anarkistaren laguna

Zeinek ez du Donnayren arabar kanta herrikoiren bat behin edo behin abestu? Jende gutxiagok jakingo du, ordea, berak sortu zuela beste lau gasteiztarrekin batera C.N.T.ko lehen sindikatua Zapatarri kalean. Dirudienez, berak eta D. Orillek harremanetan jarri zuten Isaac ideia anarkistekin. Donnay Birgaran bizi izan zen 1920tik 1922ra, eta emaztea artrosiak jota zegoenez askotan izan zuten Puenteren bisita. Antza, lagun handiak egin ziren, eta inguruetan elkarrekin egindako ibilbide ugarietan poetak ideia anarkistak zabaldu zizkion.

“GAITZA EZ DAGO GIZAKIENGAN, AGINTEKERIAN BAIKIK; GIZAKIAK BOTEREREN JABE BAINO GEHIAGO, BOTEREA DA GIZAKIEN JABE ETA MENPERATZAILA”


Ideologo, aktibista eta gizarte gaietan aurreratu

Honela, 1923an harremanetan hasi zen CNT-FAlrekin eta aldizkari eta egunkari anarkistetan idazten. Ideietan emankorra, askotarikoa, erradikala eta besteen ideiekiko begirunetsu. Honela erakusten dute bere 500 artikulua inguruk eta zenbait liburu-liburuxkak. Politikoki komunismo libertarioa aldarrikatu zuen, betiere bidean jarriz indarra: “anarkia jomuga bainoago, bultzada askatzailea eta bidea da”; bere txostena nagusituz CNTko 1936ko kongresuan. Eklektikoa zen, eta ez sobera purista. Teoria eta praktika elkarlotzen zituen, aktibismoa hobetsiz. Honela, hainbat mitin eta jardueratan hartu zuen parte militante moduan, kartzela ezagutuz 1932 eta 1934an. Agintekeria gorroto zuen, eta sistema zein boterea desegitearen aldekoa zen. Hau dela eta, Errepublikarekiko kritiko eta abstentziozale izan zen: “gaitza ez dago gizakiengan, agintekeria baizik;

gizakiak Boterearen jabe baino gehiago, Boterea da gizakien jabe eta menperatzaile". Independentzia ekonomikoa, askatasuna eta norberaren burujabetasuna zituen iraultzairen oinarri. Aitzitik, ezin zuen ikusi "artaldekeria zerebrala", hots, bere kabuz pentsatzen ez zuen jendea.

BERE IZENA ERE EZ DUT AURKITZEN GASTEIZ-KO KALEETAN. ZERGATIK OTE?

Medikuntza libertarioan erreferente nagusia ere izan zen garai hartan. Besteen artean gai hauek jorratu zituen: naturismoa, naturoterapia, higiena, jaiotza-kontrola, antisorgailuen erabilera, basketomia, sexu-hezkuntza, dibortzioa, emakumearen sexu-askatasuna... Ideia hauek zabaltzen dibulgatzaile aparta izan zen, eta eskutitzen bidezko debaldoko sexu-konsultategia izatera ere iritsi zen. Labur: opa-roa ideietan eta koherentea ekintzetan. Aldarri askotan 80 urte aurreratu zen haren garaira. Tamalez, ordea, Erregistro zibilean, oraindik desagertutzat jotzen dute. Bere izena ere ez dut aurkitzen Gasteizko kaleetan. Zergatik ote? ■



BATXILERGOA
zure etorkizuna gaur hasten da

ESKOLAK GOIZEZ

DBH / LANBIDE HASTAPENA /
HEZIKETA ZIKLOAK (eskolak egunez eta gauez) /
LANERAKO PRESTAKUNTZA IRAUNKORRA

Jesús obrero
jesuitak

A / D
ereduak

ATE IREKIAK:

Apirilak 23 / Maiatzak 7

18:00etan

Matrikulazio epea zabalik:
maiatzaren 5etik 9ra

Francia, 32. Vitoria - Gasteiz / tel. 945 000 333 / info@jesusobrero.org / www.jesusobrero.org

arababixotzian



m. iñigo sarasola



zutabea

“Aberri Eguna” Araban

t. erlantz urtasun antzano. historialaria

“Aberri Eguna” Araban aspaldidanik ospatzen bada ere, eta historia gai hone-taz dexente idatzi den arren, inoiz ez dago soberan iraganaz oroitaraztea. Ildo beretik, udaberri betean egin nahi dugu aipamen hau, eliza katolikoaren kapri-txoen arabera gure egutegia (“aste san-tua”) aldatzen badute ere, lehenago dela, beranduago dela, “Aberri Eguna”k udaberrian baitu kokalekua.



Adibidez, artxiobotan miatuz gero, Gasteiz hiriak euskal jai egun hartako protagonismoa jada duela 74 urte ukan zuen, hain zuzen ere 1934ko apirilaren 1ean, “bigarren errepublika” delakoaren garaian. Beraz, ez da atzoko kon-tua. Egunkari zaharrek berrogeita hamar mila lagunengatik jaso zuten eta, antza denez, Mendizorrotza zelaian Isusi, Landaburu, Irujo, Montzon eta Agirre aritu ziren hizlari.

Bi urte berantago, eta faxistek “gerra zibila” izenekoa piztu aurretik, Arabako zenbait herritan ospatu zen, nork bere etxean, bertze euskal herrialdeetan egin zen modu beretsuan.

Frankismoak, erran beharrik ez dago, “Aberri Eguna” debekatu zuen. Haatik, han- hemenka, urtero oroitu zen eguna eta, errepresio bortitza jasaten bazen ere, EAJ alder-diak 1966an egin zuen deialdia berriz ere Gasteizen elkar-tzeko.

Franco hil eta, 1976ko sarraskiaren ondoren, 1977an, Ezker Abertzaleak Gasteizen ospatu zuen eguna. Alta, elurpean. Ondorengo urtean, egunkarien arabera, deialdi bateratua burutu zen euskal hiri guzietan aldarrikapenaren karrikatatzeko. Hogei mila lagun bildu ei zen arabar hiribu-ruan. Garai hartan PSOEek “autodeterminazioa” eskatzen zuen, eta PSEren egituraren barruan egungo PSN ere bazen. Testu hau sinatu zuen PSEK: “La consecución de un Estatuto Nacional de Autonomía para Navarra, Araba, Gipuzkoa y Bizkaia es una solución urgente que reclama-mos como premisa imprescindible para la normalización de la vida política de Euzkadi. La democracia no será plena para nuestro pueblo en tanto, constitucionalmente, no se reconozca su soberanía y el derecho de autogobierno que posibilite su autodeterminación”.

Hor utziko dugu historia, 1978an, Hegoaldeko euskal jendeak espainiar konstituzioari ezetz erran baino lehen, orduetik honat bakarrik hogeita hamar urte igaro baitira! ■

TREBINU SAGADOTEGIA

EGIN TXOTX!

SAGARDOTEGIKO MENUA
ASTE BURUTAN IREKITA. DEITU AURRETIK

Trebiñuko ASKARTZAN
945244852 / 657736599

ARANBIZKARRA

ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa. 945 28 28 39
01002 GASTEIZ

Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



aralar

PASRAL TABERNA

Equeditan, astelohenetik ostiralera

JANTOKI BEGETARIANOA

SAN FRANCISKO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL.: 945 27 65 33

ZURE HARATEGIAK



AIZPEOLEA

harategia
arraindegia
frutategia
okindegia

Jose Luis
GARMENDIA
Harategia-urdaitegia

Andaluzia kalea 13
Tl. 945 28 79 42
GASTEIZ

Florida Azoka 2 eta 3 Tl. 945 13 24 48

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak

Obren egite
eta zuzentzea

ALTUNA Estudioa

"Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa

Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30



ARTEPAN

aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua
norbanako eta enpresen eskura

Jesus guridi, 2 - tl. 945 27 88 88
boulevard m.g. - tl. 945 06 88 88
vitoria-gasteiz - www.artepan.com

UZTINTZA

KERAMIKA TAILERRA

KERAMIKA HERRIKOIA ETA BERRIA

HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

Euskadik behar zaitu



EAJ PNV



ERROTA HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxes: 945 213 390
01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net



bar . restaurante .
albéniz

Errege atea, 9 - GASTEIZ
Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

MARRAZKIAK · KOADROAK
MOLDURAK LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tl: 945 13 27 20

Confeciones Pinedo Jantziak

San Antonio, 11 • Tl. 945 23 39 90
H. Fournier, 15 • Tl. 945 15 53 39

HEGOALDE

Euskaltegia

Matrikula zaituz !!

Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

eguneko
menua

G
GORETTI
ILEAPAINDEGIA
Hedegile kalea (Korre), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tl: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

LA RIOJANA
on egin!!! **jatetxea**
bokatak,
pintxoak, kazuelatxoak
Aitzogile kalea (Kutxi), 33
tfoa. 945 25 02 39

Zure denda erotikoa
SEX
PITILIN
GORRI
Sexua euskaraz bizi
GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60
DONOSTIA OIARTZUN

DIBUtec
Paper Berezioak
Arte Ederretarako Materiala
Ink Jet original eta birziklatuak
Bulego Materiala
Enkoadernazioak
Plastifikazioak
Kopiak
Komiseten Estampaketak
azkarprint
Inprimaria / Inprimategia
Edozein inprimaketara
mezu.

• PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

Eramun
Argazki - Estudioa
Heraclio Fournier, 23
(laborategia)
945 13 71 02
Askatasun kalea, 5
945 26 19 91

Bacalao Giraldo

- Eguneko makailu gesaldua
- Makailua eramateko prest
- 36 errezeta ezberdin

Araba Giraldo

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna
zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldiaran plaza
GASTEIZ

El Clarete
jatetxea
unai eta patxi fdr. de retana
zerkabarren kalea, 18
gasteiz 945 263 874

KIDS
APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

geusex@emaize.com


Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?

Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.

Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:

geusex@emaize.com.

Emaize Sexologia Zentroko profesionalak erantzungo dizute.



**emaize sexologia zentroa
gizon eta emakumeentzako arreta**

bueno monreal 1-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com

Aupa, 17 urteko mutila naiz eta inoiz ez dut masturbatzeko gogorik sentitu. Mutil guztiek egiten dute. Zer gertatzen zait?

Egia da nerabezaroan mutil asko masturbatzen direla, baina zu bezalako beste asko dago. Pertsona batzuk fantasia erotikoa dituztenean masturbatzen dira, beste batzuk urduri edo asperturik daudenean, bestetzuk inguruko lagunek egiten dutelako, eta beste batzuk inoiz ez.



Guztiok ez ditugu gauza berdinak gustuko eta zure desioei kasu egitea da egokiena. Masturbazioa gozatzeko aukera da, ez betebeharra.

35 urteko irakaslea naiz. Klasean, etengabe zakila ikutzen duen 6 urteko mutila dut. Ez zait gaizki iruditzen bere gorputza ikutzea, baina ez dut uste klasea leku egokiena denik. Zer egin dezaket?

Argi duzu zakila ikutzea ez dela txarra, baina klasea ez dela leku aproposa ere. Hori da umeari transmititu behar diozuna. Berarekin hitz egin (besteak aurrean izan barik) argi utziz klasean ez, baina beste leku batzuetan (logela, bainua...) zakila ikutu dezakeela. Klasea leku egokia ez dela azaltzean, eskolara beste gauza batzuk egitera doala esateaz aparte, intimitateaz aritu: gure gorputza lasaitasunez ezagutu dezakegu, besteen begiradetarik kanpo... eta gehiago goza dezakegu.



Taldearekin intimitatea lantzeko aukera aproposa duzu, betiere adibideak jarritz eta ez mutil honen kasua. Intimitatearen eskubidea eta aberastasuna, zenbait bizipen eta desio sekretuan mantentzeko eskubidea, gure gorputza aske gozatzeko eskubidea..., hau da, intimitatea balio positibo bezala landu.

errezeta

GAZTA FLANEZ EGINDAKO BIHOTZAK KANELA GAILETEKIN

diocesanas-mendizorrotxa
ostalaritza eskola



Gazta flana egiteko osagaiak:

750 gramo esne
250 gramo gazta (biguna)
200 gramo azukre
6 arrautza

Molde angeluzuzen bat karamelizatu eta beste erretilu baten barruan sartu maribainutan egosteko.

Esnea irakin. Bol batean azukrea, arrautzak eta gaztarekin nahastu eta turmix batekin dena xehatu. Ondoren, egindako nahastura esnearekin nahastu (esnea oso beroa egotea gomendatzen da). Krema iraztontzi batetik pasatu, moldea bete, maribainutan ipini eta labe beroan sartu (170°-50´).

Behin egosi eta gero egun oso bat pausatzen utzi eta bihotz forma duten moldeekin moztu, platera apaintzeko.

Kanela gailetak:

110 gramo azukre
Arrautza bat
310 gramo gurin
530 gramo irin
Kanela (nahi izan ezker)

Irinarekin "sumendi" bat egin eta barruan arrautzak, gurina eta kanela sartu eta dena nahastu. Lortutako oreka landu, baina ez gehiegi, ligatu ez dezan. Kamaran denbora bat pausatzen utzi oreka pixka bat gogortu dadin. Mahaia irinez hautsezatu eta oreka xaflatu, nahi den loditasuna lortu arte (zenbat eta berdintsuago egon, askoz hobeto, horretarako ahalegin berezia eginez) eta ondoren moztu. Erretiluetan ipini eta arrautza irabiatuaz margotu. 180°tan egosi (+15´).

Platera aurkezteko proposamena:

Bihotz forma duten hiru flan plateraren alde batean ipini eta bestaldean kanela gailetak aurkeztu, nahi izanez gero saltsa pixka bat eta fruitu naturalekin platera osatuz ■



WWW.KREARED.COM
 INFO@KREARED.COM
 TEL / FAX +34 945 150 147

KREA EXPRESION CONTEMPORANEA
 SORKUNTZA ETA KULTURA
 GARAIKIDEKO ZENTROA GASTEIZEN

Caja Vital vital kutxa

EXPRESION CONTEMPORANEA

KREER

WWW.KREARED.COM
 INFORMAZIO GEHIA

Irunkortasuna

Solidaritatea

Antzerkia


Dantza

Musika

Ikus-entzunezko arteak

Arte plastikoak

KREA 2008
 BEKA PROGRAMA



BATEKMILA EUSKAL MUNDUAK

ERAKUSKETA

GASTEIZKO AMARIKA ARETOAN
MAIATZAREN 31RA BITARTERA

ORDUTEGIA:

astelehenetik ostiralera: 18:00-21:00
larunbatetan: 11:00-14:00 + 18:00-21:00
igandeetan: 11:00-14:00

EGITARAU PARALELOA

euskara sustatzeko kultur ekintzak

'MUNDUARI MUNDO' DOKUMENTALARI BURUZKO HITZALDI MULTIMEDIA

Ander Elorza & Jon Urdangarin egileen eskutik
Maiatzak 7 (asteazkena), 20:00,
Ignacio Aldekoa Kultura Etxean

'ARABAKO EUSKAL HOTSAK-ANTECEDENTES DEL EUSKERA EN ÁLAVA' HITZALDI MULTIMEDIA

[* datu berriak]

Hizlariak: Kike Fdz de Pinedo & Jabi Otsoa de Alda
Maiatzak 21 (asteazkena), 20:00,
Ignacio Aldekoa Kultura Etxean

KONTZERTUA: MAIXA, 'SENTITZEN NAIZ'

Maiatzak 27 (asteartea), 20:30, Perral tabernan

'APAIZAC HOBETO' ESPEDIZIOA. KANADA 2006 (Diaporama) Jon Maiaren eskutik

Ekainak 17 (asteartea), 20:30, Perral tabernan

KONTZERTUA: IPARRALDETIK GASTEIZA

Maialen Errotabehere + Kiki Bordatxo
Ekainak 13 (ostirala), 21:00, Aihotz -Matxete- plazan

Erakusketa
BATEKMILA
EUSKAL MUNDUAK
LOS MUNDOS VASCOS
Exposición

2008ko apirilaren 3tik
maiatzaren 31ra
Del 3 de abril
al 31 de mayo de 2008

→ Los mundos vascos

→ Euskal munduak

Ikusleentzako orduak
Horarios de visita


Astelehenetik ostiralera / De lunes a viernes
18:00 > 21:00
Larunbatak / Sábados
11:00 > 14:00 - 18:00 > 21:00
Igandeak eta jai egunak / domingos y festivos
11:00 > 14:00

→ Basque worlds

Amarica Aretoa
Arabako Foru Aldundia
Sala Amárica
Diputación Foral de Álava

→ www.batekmila.com

EGILEA:



ANTOLATZAILEA:



KOLABORATZAILEAK (ekintza paraleloak):

